



Goierritarra

168. zenbakia

1999-10-29

Beasain-
Durango
errepidea

Zaharren
partehartzea
ezinbestekoa

Tomas
Zumalakarregi
jeneral karlista



ACERALIA LARGOS OLABERRIA

**Zorionak
Goierritarra
10. urtebetetzean**

Gozatu udaz urte osoan zehar



 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa

NaturGas



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE

Non zer

KOLABORAZIOA 6: Nagusien parte hartzea.

ERREPORTAIA 10-11:
Beasain-Durango errepidea.

KRONIKAK 14-23

SEGURA 12: Kirol ekolarra

ZEGAMA 13: San Martin azoka

ZALDIBIA 14: Ardiki eguna

ORDIZIA 15: Lizarra-Garazi foroa

IDIAZABAL 16: Abiadura murrizteko neurriak

LAZKAO 17: Belen Gonzalez atxilotua

GABIRIA 18: Idi haragia

OLABERRIA 18: Azaroaren leko ospakizunak

ATAUN 19: Musika eskaintza

EZKIO-ITSASO 20: Jolas leku berria

LEGORRETA 20: Kultur astea

BEASAIN 21: Udazken kulturala

ORMAIZTEGI 23: Kultur astea

ZUMALAKARREGI 24-25:

Biografia Mikel Alberdiren eskutik.

AGENDA 26-27

DEBALDEKO IRAGARKIAK 28

ZAHARRAK BERRI 29:

Antonio Mendizabal zaldibitar artzaina.

FOTO ZAHARRA 30: Duela 48 urteko mutiloarrak.

Goierritarrak 10 urte

Goierriko eta goierritarren aldizkariak 10 urte betetzen ditu ale honekin batera. 1989ko azaroko datarekin argitaratu zen lehenengo aldizkaria eta harrezkero, 1994ko urtarrilera arte hilero eta handik aurrera hamabostero, Goierriko eta goierritarren albisteak kaleratzen ari da **Goierritarra**.

Euskaraz irakurtzeko ohitura sortzeko helburuarekin sortu zen. Une honetan, ia 30.000 lagunek irakurtzen dute, gehixea-go edo gutxixea-go, **Goierritarra** hamabostero eta lagun kopuru hori gehitzen ari da oraindik ere. 7.800 aleko tirada dauka **Goierritarrak**, euskarazko herri aldizkarien artean tiradarik altuenekoa.

Aldizkari berritua

Urteurren garrantzitsu hau ospatzeko, bi ekintzekin dator **Goierritarra**. Batetik, aldizkariaren itxura aldatu eta atal berrie-kin gatoz. Uztailan egindako inkestako erantzunak kontuan hartuz, moldatu dugu aldizkaria.

Azala bera aldatuz hasi gara. Aldizkariaren egitura bera ere aldatu dugu. Atal bakoitza non dagoen adierazten duen 'Non Zer' atalak lagunduko zaitu kokatzen. Goierritar bati egindako inkesta lu-zeagoa, Goierriko pertsona adinduen es-kutik jasotako testigantzak, debaldeko iragarkien eta agendaren zabaltzea, lehia-keta, euskararen txokoa... horiek eta ohi-ko atalak, modu arinagoan.

Gure ahalegina hor dago, guztion one-rako eta gusturako izango delakoan.



Monika Arratibel 10 urteko ataundarra, da **Goierritarra**ren azalean ageri den neska.


Kontzertua azaroaren 6an, Beasainen

10. urteurreneko bigarren ekintza, azaro-aren 6an Beasainen izango den kontzer-tua dugu, **Goierritarrak** Euskaldunon Egunkariarekin batera antolatu duena.

Hiru Truku, Igelaren banda, Ruper Or-dorika & Mugalaris eta Tapia eta Leturia izango dira, gaueko 10,30etan, Beasain-go Antzizar Kiroldegian. Sarrerak alde-z egongo dira salgai 800 pezetan. Bertan erosiz gero, 1.000 pezeta balioko du.

Beasainen elkar ikusiko garelakoan, eta **Goierritarrak** beste hainbeste urte gehiago beteko dituelakoan, hurrengora arte.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe ganean) 124 posta-kutxa 20240 Ordizia Tfnoa: 88 96 12 Faxe: 88 27 19
Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio
Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako
kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane
Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Joseba Etxezarreta, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber
Murua, Gabino Murua, Maizpide Euskaltegia, Ignazio Mendiguren eta Javier Mosquera.
Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 7.800 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**



Beasaindar gazteak Nikaraguan eta Ekuadorren

5 beasaindar gazte, abuztuan eta irailean, Nikaraguan eta Ekuadorren izan dira, Beasaingo Udalak herriko gazteei hirugarren mundura joateko ematen dizkieten bekei esker.

Iñigo Castro, Somoton, Nikaraguan egon da. Umeei eskolako lanetan laguntzen zien, beste batzuek alfabetizatzen. Klase moduko batzuk ere eman zituen, geografiari eta matematikari buruz. Bertako irakasleei laguntzen aritu zen. Mitch hurakanak eragindako kalteak konpontzen laguntzeko beta, ahal zuen neurrian, ere hartu zuen. Pintore lanean, zurezko apalak egiten... Oso oroimen polita ekarri du eta oso esperientzia polita izan omen da.

Maria Eugenia Argiñano eta Aloña Garmendia, Chinandegan, Nikaraguan izan dira. Nekazal inguruko herria da Chinandega eta komunitate ezberdinak ikusi, zer behar duten ikusi dute. "Beharrak asko", diote. Oinarritzko gauzarik ez daukate Chinandegan, ez etxebizitzarik, eta ez janaririk. Osasun aldetik ere oso gaizki daude. "Medikuarengana joateko dirua badaukate ere, sendagairik erosteko ez daukate dirurik". Oiloen bi proiektu eraman zituzten eta umekin ere ibiltzen ziren, batez ere jolasean. Oso esperientzia aberasgarria izan da. Itzulerara gogorra egin zaio Maria Eugeniari, hemengoak ez omen du betetzen.

Arantxa Ortuz, Estelin, Nikaraguan izan da. Hiriburua da Esteli, baina nekazal komunitate asko daude eta ezberdintasun handia ikusi du batetik bestera. Udala, ONG ezberdinak elkarrekin, eta beharrak aztertzen ari zen. Mitch hurakanak sortutako kalteak konpontzeko bidalitako laguntzak orain ari dira iristen eta berreraikuntza lanak orain hasi dira. Auzoetan auzolana eta elkarlana nagusi omen da. "Lana egiteko gogoia badaukate baina eguraldiak zerikusi handia dauka. Egindako lana eguraldiak suntsitzen du".

Mitxel Zurutuzak Ecuadorreko leku ezberdinetan ibiltzeko aukera izan du. Mekanikako lanak egitera joan zen batez ere. Hiru erroten txosten teknikoak egin ditu eta makineriaren mantentimendua erakusten aritu da. Igeltsero lanean ere aritu da. Eskola batzuetan Euskal Herriari buruzko hitzaldiak emateko aukera ere izan du, munduko geografia eta historia ikasten zutela aprobetxatuz. "Ecuadorreko ekonomia goitik behera doa, herri aurreratuen politika ekonomikoarengatik. Oso herri aberatsa da, kafe eta kakao pila esportatzen du, petrolio ere badauka... baina herri aurreratuek beraiekiko daukaten kanpo politika-ekonomikoa, nahiko abusiboa da", dio Mitxelek.



Ordiziako sabotaiak gaitzetsi ditu Udalak

Urriaren 11n Ordiziako Correos-en eta Iberdrolan izandako erasoak gaitzetsi egin zituen Ordiziako Udaleko Gobernu Batzordeak (EAJ-EA-EH). EAJ, EA eta EH gobernu batzordean elkarlanerako ahalegina egiten ari direnean, ekintzok "burutik behera ur hotza botatzea direla" esanez. Ordiziako Udalak "haien atzean edozein dagoela ere" ekintzok gaitzesten ditu. Agustin Linazasoro EHko zinegotziak argi utzi zuen modu pertsonalean sinatu zuela agiria, "Lizarrako alderdiek eginiko apustuari jarraiki". EHko gainerako zinegotziek ez zuten bat egin Linazasororen jarrerarekin, "gaitzespen antzuen dinamikan" ez dela sartuko argudiatuz.

Belen Gonzalez atxilotua

Urriaren 25ean polizia frantziarrak Pauen atxilotu zuen Belen Gonzalez lazkaotarra. Bera eta Xipri Fernandez donostiarrak kontrol arrunt batetik ihes egin ondoren harrapatu zituzten polizia frantziarraren esanetan. Belenek 42 urte ditu eta Argelen ETak eta espainiako gobernuak izandako elkarriketetan parte hartu izan zen. 1989an Errepublika Dominikarrera deportatu zuten eta orain urtebete alde egin zuen bertatik. Informazioa gehiago Lazkaoko kronikan, 17 orrian.



Imuntzo eta Beloki: 'Lousianara noa'

Imuntzo eta Beloki taldeak 'Lousianara noa' diskoa aurkeztu zuen Donostian, urriaren 20an. Beloki, Euleterio Jauregi, zaldibitarra da. Era guztietako doinuak bildu badituzte ere, cajun edo bluesaren zaleak direla garbi utzi dute. Aitor Furundarena ordiziar soinu-jolearen laguntzarekin, 'Txerri jana' pot-pourriarekin bukatzen da diskoa.



Telleriarren bazkaria

Azaroaren 7an Liernin ospatuko dute 8. telleriarren bazkaria. 13:00etan meza, Telleria harrijasotzaile lasartearraren erakustaldia eta bazkaria izango dute trikitilari eta bertsolariekin. Neska-mutiko gazteenek gizonezko eta emakumezko zaharrenei txapela bana, makila eta lore sorta emango dizkiete. Iazko argazkian, Narziso Telleria tolosarra eta Juana Telleria matximentarra ageri dira.

Bertsolaritza: Goierri-Beasain kanpoan

Gipuzkoako Herri arteko bertsolari txapelketan kanpoan gelditu da Goierri-Beasain taldea, Toloxaren taldeari ezin irabazita. Goierri-Ordizia taldea bakarrik gelditzen da lehian, eta azaroaren 5ean, Beasaingo Usurbe Antzokian, lehiatuko da Urnieta-Andoain taldearen aurka.

Patxi Ezkiaga - Iñaki Mendiguren

Legorretako poetak Irun Hiria literatur saria irabazi du, poesia atalean. Iñaki Mendiguren ezkiotarrak aldiz, narratiba atalean.

Jon Urrujolegi: 'Sinonimoen kutxa'

Segurarrak 'Sinonimoen kutxa' hiztegia kaleratu zuen urriaren 21ean, Elhuyar argitaletxearekin. Guztira, 21.416 sarrera, 8.297 antonimo, 59.800 sinonimo eta 26.900 adiera biltzen ditu hiztegiak.

Asier Mendizabal: Artista Berrien lehiaketan irabazle

Artista Berrien XXXVIII. Lehiaketa irabazi du Asier Mendizabal ordiziar artistak. Asier Amnesterdamen dago beka batekin eta gurasoek jaso zuten 1.500.000 pezetako saria. Izaera politikoa omen du bere obrak. Ordiziarrek irabazten duen lehenengo saria da.

Artisaualdia 99, arrakastatsua

Gabiltza, Gipuzkoako artisauen elkarteak, Ordizian urriaren 16an eta 17an antolatutako II. Artisaualdia arrakastatsua izan zen aurten ere. Bederatzi mila lagunek bisitatu zuten Majori kiroldegiko standak. Artisauek izan zuten beraien "lehiaketatxo", stand apainketarena. Ordiziako Maxi Eroskik eman zuen saria. Irabazlea Amaia Oihaneder keramikagilea izan zen; bigarrena Karlos Irazu egur lantzailea eta hirugarrena Iñaki Agirrezabala otargilea.



Misioen islada

Misioei buruzko erakusketa berezia antolatu du Elizak, Elizbarrutiko Misioak 50 urte bete dituela eta. Rwanda, Angola eta Ekuadorren ditu Elizak bere presentzia eta jarduera eta herri hauen errealitatea eta kristau-komunitateen lekukotasuna aurkezten du 'Sar zaitez mentura zoragarri honetara' erakusketak. Batez ere, haur eta lehen hezkuntzako ikasleei zuzendua dago erakusketa ibiltari hau, baina oro har, herritar guztientzako egokia da. Beasaingo La Salle ikastetxean dago ikusgai, urriaren 29ra bitartean. Datorren hilean, erdialdean, Ordizian izango da.

Herrialde ezberdinertako materiala biltzen da: elikagaiak, jantziak, musika tresnak... Haurrak beste herrialdetara hurbiltzea nahi da, sentsibilizatzea eta elkartasunean jarraitzearen menturan parte hartzea.

Argazkian, haurrak hainbeste gustatzen zaien kakaoa nondik datorren ikusten eta ikasten.

Bekak unibertsitateko eta goi mailako ikasleentzat

1999-2000 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi mailako hainbat ikasketa egiten ari direnentzako bekak emango ditu Eusko Jaurlaritzak.

Baldintzak: EAEn erroldatua egotea eta bertan edota Estaturako lurralde eremuan, 1999-2000 ikasturtean zehar, oinarrietan zehazten diren unibertsitate ikasketak edo gai mailakoak egitea. Oinarriak eta informazio gehiago Ordiziako Udaleko Gazte bulegoan dituzue.

Gaur, urriak 29, amaituko da eskakizunak aurkezteko epea. Eskeidazkiak Ordiziako Gazte Bulegoan eskura daitezke (40 pezeta kostatzen da aleko). Telefonoa: 943805634.

X. Beasain Idazlehiaketa

Beasaingo Udaleko Euskara-batzordeak antolatutako X. Beasain Idazlehiaketako oinarriak kaleratu dira. Beasaindarrei edo Beasaingo ikastetxeetan ikasten duten ikasleei zuzendurik dago lehiaketa. Abenduaren 13rako aurkeztu behar dira lanak Beasaingo Udaletxeko Euskara zerbitzuan. Oinarriak ikastetxeetan dituzue.



Ignazio
Mendiguren
(medikua)

“Protagonista aktiboak bihurtu behar dira pertsona nagusiak”

Azken hamarkade-tako gure gizarte-aren ezaugarri demografiko garrantzitsuenetariko bat, sortzen ari den gizartearen eten-gabeko zahartzea da. Ikerketarako arrazoi berria da berau, ez bakarrik luzapena errazten duten faktoreak aztertuz, baizik eta batez ere, zein faktore, ohitura edo jokabidek ahalbidetu dezaketen zahartzaroa prozesu autonomoa eta ona izatea, edo alderantziz, gure bizitzako etapa atsekabez eta dependentziaz markatua izatea.

Faktore hauek identifikatzeko, era batera edo bestera, pertsona bakoitzaren ongizatean (bizitza kalitatea) eragiten duten arlo ezberdin guztiak hartu behar dira kontuan. Munduko gizarte, kultura eta ohitura ezberdinetakoko pertsona zaharren bizitzak oinarri ber-berak dituzte: osasun fisikoa eta burukoa, familia eta giza harremanak, ekonomia eta etxebizitza, aisia eta denbora libre.

Erraz ondorioztatu daiteke, alde hauetako edozeinen murrizketak, batetik, pertsonen ongizatea baldintzatzen dutela, eta beste arloen garapenean negatiboki ere eragiten dutela. Adibidez, zaila da pertsona heldu batek bere etxebizitzan arazoak eduki edo/eta etxetik atera eta etxera sartzeko oztopo arkitetnikoak eduki eta harreman sozial onak edukitzea; zaila da sozialki aislatua da goen norbaitek afektibitate

“Bizitzari urteak eta urteei bizitza gehitzea lortu behar da”

eta autoestima maila desiragarriak izatea, edo bere denbora libreaz edo aisialdiaz gozatzea. Era berean joan gaizteke beste arlo ezberdinak elkar lotzen.

Azkenik, ezin genezake pentsatu pertsona nagusiak arlo bat baino gehiagotan gabeziak sufritzeko kolektibo sentibera izan denik **beti**. Aipatzekoa da egoera hone-tan sortzen den onarpen soziales eta larriagoa dena pertsona nagusiek beren buruaz duten auto onarpena. Sozialki, inutilitatearekin, gaixotasunarekin, dependentziarekin identifikatzen dira pertsona nagusiak. Gainera legalki denak “klase pasiboaren” barruan sartuta daude eta **beraiek** neurri handi batean horrela izatea onartu dute.

Eta hain zuzen ere beraiek (pertsona nagusiak) dira berezko gaitasunaren, aipaturiko arlo bakoitzaren berezko konpententziaren **protagonista aktiboak** bihurtu be-

har direnak; ziurrenik beste kolektiboen (mediku, agente sozial, kirol eta denbora libreko monitoreak, eta abar) babesa, aholkularitza, irakaskuntza izango dute, baina beraiek izan beharko dute beraien **oraina** eta **geroan** lan egin behar dutenak, egunerokotasunean sortzen zaizkien egoera eta aldaketa ezberdinetara egokitzeko gai eta konpetenteak izan behar dutenak.

Gure osasunaren alde fisikoak (elikadura, ariketa fisikoak...), burukoak (memoria, afektibitate...), familiarrak, sozialak (lagunak, bizilagunak, auzoa, etxea...) zaindu behar dituzte eta ditugu. Beraien aisialdiaz gozatu behar dute, bitartean aisialdiaren erabilera probetxugarria eginenez. Azken batean, eguneroko papera, “rola” aldatzean datza, eta aldaketa honen protagonisak beraiek izan behar dutela ulertzean.



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN





Patxi Telleria

Goierritarrak 10 urte

Goierritarrak aurten
ditu amar urte,
bere eginkizuna
ongi du bete,
bear diran mezuakin
dabil atez-ate.
Zintzoa nola degun
denok degu maite,
fina nolabaite,
gauz oberik ote?
gaiztori azote,
bearrezkoa ez ote?
gurea dan erriri
on dezaioite. (Bis)
Arrazoi daukak eta
aurrera mote(l).

Goierriko gazteak
denak dute lagun.
Besarkatuaz beti
goxo ta legun.
Begira erritarrok
zenbat maite degun,
konfiantza osokin
atea jo zigun,
barruratu bigun.
Orain gau ta egun,
udaran da negun,
nola porta zaigun,
Goierri euskalduntzen
doa sosegun. (Bis)
Denok alkar arturik
jarrai dezagun.

Zorionak Goierritarra

Goierritarra aldizkaria irakurtzen eta egiten dugunok badugu motiborik harro egoteko; izan ere, Goierriin euskaraz irakurtzeko ohitura sendotzeko jaio zen gure aldizkari honek hamar urte bete baititu, jada!

Beharbada inor gutxik pentsatuko zuen, 1989an taldetxo batek Goierri bailaran euskal aldizkari bat argitaratzeko asmoa azaldu zuenean, berau 10 urteko mutil kokkorra izatera iritsiko zenik (urteak betetzen jarraituko ahal du!), baina halaxe da, jende askoren ahaleginari esker osasuntsu dabil gure aldizkaria.

Txokotxo honetatik eskerrik beroenak eman nahi nizkieke oinarri sendoak jartzen lagundu duten Jon Mikel Arano, Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Aitor Larrañaga, Luix Mari Zubeldia, Tere Irastortza eta Josune Agirrerri; hamabostero beren kronikatxoa zintzo eta ezer kobratu gabe bidaltzen duten (eta bidali izan duten) goierritarrei, publizitatea orritxo hauetan txertatzen duten guztiei eta baita, zuzenean edo zeharka, bere kolaborazioa eskaini duen orori ere!

Ez dugu ahaztu behar, gainera, euskal herri-aldizkarietan **Goierritarra** dela tiradarik handiena duena (7.800 aletik gora, alajaina!). Datu hori entzuteak poztu egin beharko gintuzke, eta pozten gaitu, noski, gero eta esku gehiagotara iristen den seinale, baina aldi berean kezkatu ere egiten gaitu. Orain bost urte aldizkariaren tirada 2.500 alekoa zen. Pentsa ordutik nolako erritmoan hazi den egungo ia 8.000ra iristeko! Horrek, inolako ezpairik gabe, gastu handia ekarri du (posta, inprenta...), baina ordutik hona igo ez dena udaletxeetatik jasotzen dugun dirulaguntza izan da (handienetatik, behinik behin). Bihoa, beraz, lerro hauen bitartez, bertako arduradunentzat gai honen inguruan hausnarketa egiteko eskaera. Guk, geure aldetik, zuzena deritzogu egiten dugun aldarrikapenari.

Tira, ez dezagun X. urteurren hau mikaztu; hortxe dugu, gainera, azaroaren 6an belarriak *goxatzen* lagunduko digun kontzertu ikusgarria. Inor zalantzatan badabil, uxa ditzala mamuak eta anima dadila, mereziko du eta!



Aitor
Asurmendi
(Goierritarrak
Kultur Elkarteko
lehendakaria)

Arkupe

tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Maindlreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA

IBAI-ONDO

Altzariak neurriira


Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN





Javier
Mosquera
Abokatua

Testamentuak

Testamentua egitea, egun, zahartzaroa eta heriotzaren aurrerapen gisan dago ikusia. Ez da ordea zentzu honetan ulertu behar, familieren 'gaur' eta 'bihar'-a antolatze gisan baizik. Biderapen erraz bat besterik ez da. Hauek dira jarraitu beharreko urratsak:

- Testamendua pertsona berak egin behar du, bere ondasunekin zer egin nahi duen adieraziz.
- Mota ezberdinak daude:
 - ✗ Irekia: Notario aurrean egin (ohiko eta errazena da).
 - ✗ Olografoa: Pertsona berak idatzia. Behin eta hau hiltzean, legezko betebeharrak koprilatsuagoak ditu. Hau da, Auzitegian aurkeztu beharra, Notarian inskribatu beharra...
 - ✗ Itxia: Oso gutxi erabilia da, era oso formalista.
- Testamentua egitean, legeak dioen bezala, beharrezko heredatzaileei, 'legitima' deiturikoa ematen zaie.
- ✗ Seme-alabei ondasunen 2/3. (1/3 'Mejora' deiturikoa, bati, bereziki. 1/3 nahi denari).
- ✗ Gurasoei (bizi badira eta seme-alabarik egon ezean) 1/2 dagokie.
- ✗ Alargunari, dena ematen zaiola uste arren, ez da horrela. Seme-alaba eta gurasoei banatu behar harko da.
- Testamentuan, ez dago ondasun guztiak zehaztu beharrik, ez eta heredatzaileak izendatu beharrik ere.
- Heredatzaileak, herentzia osorik hartu behar du. Ezinezkoa da ondasunak hartu eta zorrak ukatzea.
- Testamentua eginda egon ezean, arazo asko sortzen dira. Estatua hildakoaren ondasun zati on batekin gelditu daiteke.

Lehiaketa

Lehiaketaren txokoa


Hemendik aurrera haxe izango da **Goierritarra** berrituaren lehiaketaren txokoa.

Hamabost egunero galdera bati erantzuten diozuen guztion artean zozketatxo bat egingo dugu. Animatu parte hartzera azken aldizkariko zozketan hainbatek egin duten modura.

10. urteurreneko kontzerturako sarrerak:

Ondorengo 3 pertsonak bina sarrera izango dituzte azaroaren 6an Beasainen antolatu dugun kontzerturako.

Leire Munduate (Ataun)
Iñaki Iturrioz (Ordizia)
Igor Eskisabel (Lazkao)



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Zorion Insaustiren laguntzaz
Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
☎ 943 88 13 37
ORDIZIA

Euskara txukunean

Ondo edo gaizki, txukunago edo okerrago, kontua euskaraz egitea da. Pentsakera hau guztiz errotua dugu. Gaur egungo euskararen egoera hil edo biziko honetan, kalitateari baino areago kantitateari kasu egin behar omen diogu! Hala ere, egiten duguna txukun eta jator eginez gero, hobe, ezta?

Zorioneko 'zorionak'

Erdararen eraginez, hainbat trakeskeria eta "hanka sartze" egin ohi dugu gure eguneroko hizkera mintzatuan eta idatzian. Akats nabarmenak guztiz, barkaezinak askotan. Berehala zuzendu beharrekoak. Adibide bat baino ez gaurkoa: **Zorioneko 'zorionak'!**

Gaizki

Eskolaren eraginez edo, auskalo, haurren artean eta, ondorioz, etxeko helduen artean ere bai, oso zabaldua dugun akats tipiko bat: *Gaur Ekaitzen zorionak dira*. Ez dago ondo esanda.

Ondo

Idea hori adierazteko forma eder eta txukun asko ditugu euskaraz: *Gaur Ekaitzen urteak dira; Ekaitzek 15 urte egiten ditu; Ekaitzek urteak betetzen ditu; Ekaitzen urtebetetzea da...* Eta, gero, Ekaitzen urteak direla eta, Ekaitzi egun horretan zorionak emango dizkiogu; *zoriondu* egingo dugu; *zorion-agurra* bidaliko diogu iratiaren biez...

Beraz...

Ea, bada, aurrerantzean, irratira telefonoz hots egiten dugunean, *Gaur halakoren zorionak dira...* esan edota entzun ordez, *Gaur halakok urteak egiten ditu eta zorionak eman nahi dizkiot* esan edota entzuten dugun. Eta horrela, euskaraz egingo dugu, baina euskara txukunean, jatorrean!

Diru mugarik ez bazenu, zer antolatuko zenuken Udazken kulturalean?

Beti dago diru muga. Gainera 'lan erizpidea' ez da niri pertsonalki gustatzea.

Antzerkia, musika, zinea, bertsoak, dantzak... zer duzu gogoko-en?

Dantza, dudarik gabe. Baina egitea, ez ikustea bakarrik.

Zer jarri, zer kendu, zer hobetuko zenuke Beasainen?

Kultur azpiegiturak hobetuko nituzke. Desfasatu xamarrek gelditu dira.

Beasaingo urteko ospakizunik gogokoena?

Ez dut lehentasunik.

Zer egingo zenuke Igartzako jauregian?

Justu justu egiten hasi garena. Beti ere jauregia multzo baten zati dela gogoratuz.

Dantzarako musika bat?

Cha cha cha, salsa, bolero edo tangoa, berdin da.

Gustuko liburu bat?

Bidai gidaliburu bat.

Parrandarako leku bat?

Gustoko musika duen edozein leku.

Oporretarako leku bat?

Ez dago leku bakar bat. Urtero lekuz aldatzen dut.

Norekin afaltuko zenuke gustora?

Egunero afaltzen dut gustora.

Interneta erabiltzen al duzu?

Oso gutxi. Hasi berria naiz.

Zein pelikula gustatuko litzazuke errealitatean?

Errealitatea edozein pelikula baino aberatsagoa da.

Maniarik bai?

Nire irtiz ez. Ondokoek ez dakit zer esango luketen.

Amets bat?

Bakea.



Miren Kortaberria

Beasaingo Udaleko Kultur Teknikaria

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala irekita

* Eguneroko menuak

* Asteburuko menu bereziak

* Karta zerbitzua

* Sagardotegiko menua

SAGARDOA TXOTXETIK

* Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Beasain-Durango errepidea 2003. urterarte geldirik

B easain-Durango errepideko lanak geldirik daude, 1997. urteaz geroztik. Beasaindik Alegirainoko zatia bakarrik dago egina. Zati honetan eztabaidak izan dira inguruko udalen eta Foru Aldundiaren artean, baina azkenean, alternatiba onartua dago. 2003. urtean berriz ere lanak hasiko direla aurrakusten da, nahiz eta epe hau aurreratzeko esperantza izpi bat egon daitekeen. Errepide zati honetan, egunero 12.000 ibilgailu pasatzen dira, horietatik asko, kamioiak, eta Urola zein Goierri bailaren garapen ekonomikorako erabat garrantzitsua da errepide zati hau lehenbailehen egitea.

Azken urte hauetan Goierri eta Urola Garaia bailarek garapen ekonomiko nabarmena somatu dute. Bailara hauetan kokaturiko enpresa handien babesean (CAF, Aristrain, Orkli, Orbegozo, Patricio Etxeberria) hainbat eta hainbat enpresa txiki inguruko udalerrietan kokatzen joan dira.

Garapen ekonomiko guztiek bizitza kalitatean eragin zuzena izaten dute, baina modu berean garapen honen euskarri garrantzitsuenetakoa azpiegitura sare egokia eskura edukitzea izaten da. Euskal Herria oro har eta gure eskualdeak zehazki dituen baldintza geografikoak kontuan izanik, lan handiak ematen ditu azpiegitura hauen definizio eta ondorengo eraikuntzak.

Etorkizunari begiratu, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argi dute garapen ekonomikorako eta industri guneak

azpiegituren alboan egon behar dutela. Gogoeta eta administrazioek inguru honetarako dituzten asmoak oinarritzat harturik, Urola Garaia zein Goierri bailaren etorkizun ekonomikorako beharrezkotzat jotzen da azpiegitura hauek lehen baino lehen bideratzea.

**Urola
Garaia zein Goierri
bailaren etorkizun
ekonomikorako beharrezkotzat
jotzen da Beasain-Durango
errepidea lehen baino lehen
bideratzea.**

Plangintza honen ardatz nagusienetakoa errepideak dira. Maila honetan garrantzi ukaezina dute Etxegarateko zabalketak eta Beasain-Durango errepideak. Lehenengoari buruz hainbat hitz egin eta ekintza bideratu ondoren azkenik martxan dagoenez,



*Egunean 12.000 ibilgailu pasatzen dira Ezkio-Itsasotik.
Asko eta asko kamioiak.*

bigarrenari buruz hainbat xehetasun emango dizuegu ondorengo lerroetan.

Foru Aldundiaren alternatiba

Errepide honetako lehen zatia, Ormaiztegiraino doana amaitu ondoren, 1997ko azaroan Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ormaiztegitik Bergararaino doan zatiari buruz, sei alternatiba aurkeztu zituen Ezkio-Itsaso, Ormaiztegi, Gabiria, Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Antzuola eta Bergarako udalen aurrean, beraien ikuspegia ezagutzeko asmoz. Alternatiba bakoitzak puntu kopuru bat zuen eta horren arabera Errepide Sailak alternatiba bat aukeratu zuen egokiena bezala.

Alternatiba hauek ezagutu ondoren eta Foru Aldundiaren aurriritzia jakinez, Ezkio-Itsasoko Udalak bere desadostasuna plazaratu zuen, bere ustez aukeratutako al-


ternatiba ez zelako egokiena eta bailarari kalte nabarmena eragiten ziolako. Helegiteak aurkerteko aukera zegoenez, Ezkio-Itsasoko Udalak, ingururako proiektu egokiagoa aurkitzeko asmoz, ingenierritza enpresa kontratatu zuen. Azterketa egin ondoren, enpresa honek ez zuen inolako zalantzarik Errepide Sailak aukeraturiko alternatiba ez zela egokiena esateko eta bide batez beste alternatiba berri bat aurkertu zuen. Alternatiba honek, Urola Garaia Mankomunitatea osatzen duten Udalen babesa jaso zuen.

Azkenik, aurkeztutako helegite guztiak aztertu ondoren, Foru Aldundiak erabakia hartu zuen. Nahiz eta aldaketa batzuk onartu, funtsean lehen momentutik hauraturiko alternatibari eusteko erabakia hartu zuen.

2003. urterarte atzeraturik

Hau horrela izanik, gaur egun alternatiba honi dago-kion proiektua prestatzen ari

da Errepide Saila. Epeei dagokionez, errepideetako plangintza orokorra jarraituz, lehentasun batzuk planteatzen dira eta denetan nagusia Eibar-Gasteiz autobide berriak izango du. Plangintza honek, Beasain-Durango errepidea bigarren maila batean jartzen du. Planteamendu honekin, errepidearen eraikuntza epeak urte askotan atzeratzen dira eta bide batez, Ezkio-Itsasotik Zumarragaraino doan zatia 2003. urtean hasiko lirateke eraikitzen.



Berdez, Foru Aldundiak Udalen alegazioak entzun ondoren onartutako ibilbidea.

Gaur egungo egoera hau bada ere, etorkizun hurbilari begira aldagetak somatu daitezke. Badirudi Eusko Jaurlaritzako Garraio Departamenduak azpiegituretara hainbat inbertsio bideratu nahi dituela. Euskal Herriaren eraketa abiapuntutzat harturik, errepide sarearen

garrantzia ukazina dela uste du. Ildo honetatik jarraituz, diru sarrera berri honek aukerak zabalduko lituzke epeak laburtzeko orduan.

Bestalde, esan behar Urola Garaia Mankomunitatea osatzen duten udalek (Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta

Zumarraga) hainbat gestio egiten ari direla Eusko Jaurlaritza zein Foru Aldundiaren aurrean errepide honen eraikuntza epeak ahal den neurrian laburtzeko asmoz.

Arazoak arazo, herri guztiak, Ezkio-Itsaso barne, ados dira errepide honek ga-

rrantzi nabarmena duela esaterako orduan. Udalerri guztien artean komunikazio hobe eskaintzeaz gain, etorkizunari begira ardatz ekonomiko garrantzitsu bihurtuko da Beasain-Durango errepidea.

Joseba Etxezarreta



Zorionak Goierritarra
10. urtebetetzean



Polígonoa 201 - Tfnoak: (943) 88 09 79 - 88 80 89 - Fax: (943) 88 80 89 - OLABERRIA (Gipuzkoa)

Ikastaroetarako deia

Udaleko ongizate, euskara eta kultura batzordeen inizatibaz, jendearen intereseko ikastaro edo aktibitateak antolatu asmoz, 18 urtetik gorako herritarrak kultur etxera deituak izan ziren herene-gun. Bertan, besteak beste, euskara ikasi edo hobetzeko gonbite zuzena egin zitzaizen herritarrei. Informazio gehiagorako udaletxean.

Santu Guztiak

Azaroaren 2ra arte egun osoz egongo da irekita kanposantua. Azaroaren 1ean, aurrez errosarioa errezatuta, arratsaldeko 5etan izango da hildakoen aldeko meza hilerrian. Azaroaren 2an, iluntzeko 7etan, arimetako meza izango da urte barruan hil direnen alde parrokiari.

Elorri elkarte berria

Elorriko elkarte berria bazkide berri izan nahi duen herritarrak, bertako juntakideekin harremanetan jarri edo Elorripen eskatu behar du informazioa. Inaugurazio eguna azaroaren 26rako dago iragarria. Urriaren 8an egin zen bazkideen batzarrean barne araudia onestear gain, bertako bazkide izateko diru kopuruak ere zehaztu ziren. Soldatadunek 50000 pezeta jarri beharko dituzte. Soldatagabeek, elkartearekin hitzarmena sinatu ondoren, lana aurkitzen dutenetik urtebeteko epean ordaindu beharko dute kopuru bera.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Preferentea:** Segura 3-2 Oiarzun. **Jubenilak:** Ordizia 2-1 Segura. **Kadeteak:** Ordizia 5-1 Segura. **Infantilak:** Aizkorri 13-0 Hamaikak bat.

Hasiak dira kirol eskolarrean



Etxeko kirol jardunaldi gehienak Baratze Pelotalekuan eta bere aldamenean izango dira.

Eskolorduz kanpo, heziketa eta jolasa helburu izanik, Xabier Intxausti kirol teknikariaren ardurapean, urriaren 16tik ari dira 8tik 16 urte arteko 55 neska-mutiko eskualde mailako kirol eskolarreko 14. edizioan parte hartzen. San Joanak alderarte, zapatu eta jai goizetan 10 kirol ezberdinetan arituko dira: herri kirolean, pelotan, mendian, mahai tenisean, atletismoan, krosean, areto futbolean, saskibaloian, igeriketan eta trial-sinean.

Laguntzaileak. Entrenatzaile edo begirale modura Xabierri denboraldian zehar lagunduko diotenak ondorengoak dira: mendian Txetxu Ormazabal, pelotan Xabier

Imaz, futbolean Inge Olano, Uritz Gonzalez, Ekhi Albizu, Joxe Mari Gereñu eta Javi Arnaez (azken hau saskibaloian ere bai).


Bihar, urriak 29, futbolean, Baratze pelotalekuan, neska alebinek, goizeko 10etan, Ataungoen kontra jokatuko dute. Mutil alebinek, 11etan, Ordiziako Jakintza 'B'koen aurka. Pelotan, berriz, benjaminen Ataunen jokatuko dute goizeko 10etan.

Kirol sustapena. Iaz bezala, gutxi praktikatzen diren kirolak bultzatu asmoz, 3tik 8 urte bitarteko haurrek xake eta igeriketa saioak izango dituzte Gabonak aldera arte. Igeriketa ez bezala, xakea eskolorduz kanpokoa eta borondatezkoa izango da.

Asteburuan etxean: Jubenilak: Segura-Aldapetarrak, zapatuan arratsaldeko 4retan.

Labur-labur

● **Udal plenoa atzeratu.** Beste zenbait bilera direla



Xabier Imaz

Bigarren mailako lau eta erdiko txapelketaren barne Xabier Imazek zapatu honetan 16:30-etan Bergaran jokatu du Berasaluze VIII.aren aurka. Honi irabaziz gero, Errandonearen kontra jokatu beharko luke. Orain arte 3 pilotari kanporatu ditu: urriaren

1ean, Sorian, Galarza IV.a (22-8), urriaren 17an, Najeran, Rai (22-17) eta urriaren 24an, Ezkarozen, Pascual (22-6).

eta, azaroaren 4an, arratsaldeko 7etan izango da atzo egin beharreko plenoa. Gai ordena aurrez kaleratuko da.

● **Sasietaren oharra.** Azaroaren 1a jai eguna izan arren zaborra bildu egingo da.

● **Gipuzkoako jubilatuen eguna.** Azaroaren 13an Donostian izango den jubilatuen eguneko bazkarirako Atsedeen Elkartearen eman behar dira izenak. Epea: azaroaren 2ra arte. Prezioa: 1500 pezeta.

● **Herriko odol-emaileen afaria.** Azaroaren 20an izango da Zopajale Elkartearen. Izenak azaroaren 14a baino lehen eman behar dira Drogerian edo Jermanenean.

Joseba Telleria

Urbia eta Aizkorriko artzainen I. Gazta lehiaketa San Martin azokan



Urbia eta Aizkorri mendikateko gaztarik onenak azaroaren 13ko txapelketan izango dira.



Erretako Asemendi baserriaren aldeko bertso jaialdia

Joan den urriaren 23an egin zen Asemendikoen aldeko bertso jaialdia. Bertan parte hartu zuten bertsolariak honako hauek izan ziren: Egaña, Lizaso, Murua, Agirre, Peñagarikano eta Irazu. Gai-jartzailea: Laxaro Azkune.

Jaialdian laurehun entzuletik gora izan ziren eta aipagarriena bertan sortutako giro aparta izan zen. Sei bertolariek nahiz gai-jartzaileak beren laguntza eskainiz dohainik egin zuten saioa.

Saskigintza erakusketa Kultur Etxean

Kutxaren laguntzaz, Etnogintzak duen 'Saskigintzako erakusketa' ikusi ahal izango dugu Kultur Etxeko erakusketa gela, bi asteetan zehar. Bertan Euskal Herriko saski tipikoak izango ditugu ikusgai.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara eta larunbat eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Antzerkia

Kultur Etxeak antolaturik, bi antzerki obra izango ditugu:

Azaroak 7, igandea: Beasaingo Errail taldearen eskutik, 'Sukaldean' lana, arratsaldeko 6etan, Zinean. Sarrera 200 pezeta.

Azaroak 14, igandea: Ordiziako Urrup taldearen 'Autoa' antzezlan, Zinean, arratsaldeko 6etan. Sarrera 200 pezeta.

Udalaren inizatibaz, Urbia eta Aizkorri mendikatean larrean egiten duten artaldeetatik sortutako artesnearekin egindako gazten I. lehiaketa antolatu da. San Martin azokan, azaroaren 13an, izango da lehia.

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko honako baldintza hauek dira beharrezkoak:

- 1.- Norberaren artaldeko artesnearekin egindako gazta izatea.
- 2.- Artaldeak Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoan, Partzoneri Txikian edota Zegamako zelaietan larrean egiten duena izatea.
- 3.- Gutxienez 2 hilabete izatea gaztak.

4.- Gutxienez 75 buru izatea artaldean (Foru Aldundiko Sanitate kanpainarako zentsatuak).

Lehiaketan parte hartzeko azaroaren 10a bitartean eman behar da izena Udaletxean. Bertan emango zaizkizue argibide gehiago.

San Martin azokaren presaketetan ari da Uda. Aurreratzeko moduan gaude izango diren hainbat ekitaldi: ganadu lehiaketa, barazki erakusketa, artisauak, gazta txapelketa eta dastaketa, txakolin dastaketa, pilota partiduak eta herri-kirolak. Hurrengo alean izango dugu informazio zehatza.

Eduñe Albizu

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*



Urriaren 31ko Ardiki egunerako dena prest

Igandean, urriaren 31n, izango da aurtengo Ardiki eguna. Ardia oinarri duten produktuak eta aldi berean artzantza bultzatzeko helburuarekin sortu zen Ardiki eguna.

Ardikia helburu izanda, mondeju eta gazta lehiaketak izango dira egunaren ardatz. Mondeju zuriak lehiatuko dira eta edonork har dezake parte lehiaketan. Gazta lehiaketa, berriz, mugatua da: Aralarko artzainek bakarrik har dezakete parte. Resti pilotalekua izango da bi lehiaketen eszenatokia.

Lehiaketez gain, zer ikusi eta zer dastatu ugari izango da.

Goizeko 11etan artisautza erakusketa izango da. Herri-tarrak artilea egiten, gazta ontzen eta mondejuak egiten arituko dira. Goizean zehar ardi, ahari eta pottoka erakusketak ere izango dira.

Bazkaldu aurretik, 12ak aldean, eta aurtengo berrikuntza nagusienetarikoa bat hauxe da, garai bateko Aralarko artzainen jokoen erakustaldia izango da: pilota, saltaarrie, probaarrie, makila zeharkatzea, pustarri jolasa...

14:00etan izango da bazkaria. Mondejua, ardikia piparrekin, ardikia saltsan, gazta, ardoa, kafea, pattarra eta purua, 2.000 pezetaren truke. Aurrez eros daitezke txartelak herriko tabernetan eta 943160338 telefonoan.

Bazkalondoren, Maddalén Lujanbio eta Oihane Enbeita bertsolariek eta trikitilariak alaituko dute giroa.

Erakusketa

Festetako argazkien erakusketa ikusgai egongo da Kultur etxean azaroaren 7tik 14ra. Astegunetan 17:00etatik 20:00etara eta asteburu eguerdian.



Suteetarako ur hartuguneak

Herri inguruko etxe eta baserrietan suterik gertatuz gero, itzaltzeko lanetan lagungari izan daitezzen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lehendakaritza Departamentuak suteen aurkako 11 armairu jarri ditu herriko 11 gunetan:

Kokapena	Mauka 20mkoa	Lantza 25mmkoa	Banagailua 70/45	Banagailua 45/25
Ausoegi	4	1		1
Bittorio Etxe	5	1	1	1
Igartzaeta	5	1	1	1
Aizporra	4	1		1
Urtularre	4	1		1
Irizar Goikoa	4	1		1
Irizar Behekoa	5	1		1
Urreta Goena, Miranda Etxe	5	1	1	1
Mamu-enea, Etxe Berri	5	1		1
Elizegi, Saturdi	5	1	1	1
Agarre Urreta	6	1	1	1
Orotara	52	11	5	11

Armairu horiek eta bertan dauden suteen aurkako tresnak Foru Aldundiarenak dira, baina Udalaren ardura da material hau uneoro erabiltzeko prest egotea. Azkenik, bi erakundeak elkarlanean arituko dira udaleko langileei eta bizilagunei aipaturiko tresnen erabilera erakusteko. Lehenengo erakustaldi edo inaugurazioa Agarre Urreta baserrian egin zuten urriaren 1ean. Han izan ziren alkatea, bi zinegotzi, Foru Aldundiko ordezkaria, suhiltzaileen zerbitzuburua eta Ordiziako parkeko 3 suhiltzaile. Denen artean bertako bizilagunei eta udaleko langileei material horren erabilera azaltzen saiatu ziren.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

OSKARBI

OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers



K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

Lizarra-Garazi foroa abian

Egun bizi dugun gizarte egoera kontuan hartuta sortu berria da Ordizian Lizarra-Garazi akordioarekin bat egiten duen taldea. Bertan ELA, LAB, ESK, Gestorak, Senideak, Jarrai, IA, Elkarri, HB, EAJ, EA eta IU-EB elkarte eta alderdiak biltzen dira, baina jakin oro har herritar guztien iritzientzat zabalik egongo den taldea izango dela. Xedea guztion arteko elkarrikeria bultzatzea izango da, beti ere Euskal Herriaren etorkizuna moldatzeari bu-

ruzko ikuspegi guztiak eza-gutuz, adostasun eta desadostasunak mahaigaineratuz eta gure arteko ezberdintasunak baloratuz.

Hitz gutxitan esateko Lizarra-Garazi foro honen bidez, akordioa sinatzen duten elkarte eta alderdiak zera lortzen saiatuko dira: gizabana-ko eta kolektiboenganako errespetutik abiatuta, jendea kontzientziazten joan dadila denok elkarrekin bizi gaitezkeela, beti ere oinarri demokratikoak bermatuz.



Urriaren 9an egin zen Lizarra-Garazi foroaren aurkezpena komunikabideen aurrean

Dagoeneko taldeak egin du komunikabideen aurreko aurkezpena eta aurrerago herritar guztiak gonbidatuz aurkezpen publikoa egiteko asmoa dute. Guzti hori egin

ondoren lanean jarraitu eta Ordizian dauden sektoreengana joko dute, beti ere hauen inplikazioa eskatuaz. Foro honetan herritar guztien partaidetza irekia izango da.

Zorua berriztapena

Etxezarreta kaleko zoruko lanak amaitzen ari diren heinean, Elkano edo Asto kalekoak hasi dira. Berez kale estua izanik, makinak sartu eta ateratzen zailtasunak nabariak dira. Dena den, ez da hain kale luzea eta lanak epe motzera amaituko dituzte, hilabete pare bat barru. Honen zorua berriztatu eta gero, Santamaria kalea, Kale Nagusia eta Enparantza Nagusiko zorua geratuko dira egiteko.

Urnieta-Andoain arerio

Zaldibia eta Beasain kanpoan geratu eta gero Ordizia da Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolaritza Txapelketan aurrera egin duen Goierriko talde bakarra. Hurrengo kanporaketan Urnieta-Andoain taldea izango du kontrario eta oraingoan saioa bakarra izango da. Berau Beasaingo Usurbe Antzokian izango da azaroaren 5ean, ostirala. 12 talde arituko dira fase honetan.

'Zine animatua' Gaztetxean

Ordiziako Gazte Asanbladak antolatuta zine emanaldiak izango dira Gaztetxean azaroaren 5, 12 eta 19an. Filmak mota askotakoak izango dira, bi neurritakoak 16mm eta 8mmkoak. Denak ere aipatu egunetako iluntzeko 8etan hasiko direla eta pelikulak ikusi nahi dituenak 200 pezeta utzi beharko ditu taldetan.

Aitor Calvillo



Muztag-ata edo 'Izotzeko mendien aita'

Udan sartzearekin batera aipatu genizuen Ainitze Gorospe ordiziarra Txina aldera joatekotan zela. Bada, joan joan zen eta baita bere helburua lortu ere. Muztag-ata mendiak dituen 7.546 metroetara uztailearen 16an lortu zuen iristea. Hori bai, eskiz igotzeko asmoa bazuen ere, tripako min batzuk tarteko, azkenean oinez igo zen. 15 lagun abiatu eta azkenik 8k lortu zuten tontorra aipatu egunean, denak ere oinez igota.

Ainitze bertan konturatu zen Muztag-ata mendiaren ezizenaren zergatiak (izotzeko mendien aita), glaziar arriskutsuak baitaude eta ikaragarritzko hotza egiten baitu.

Behin Txina aldetik itzuli ondoren baditu etorkizunerako planak Ainitzek: abenduan Marruecos aldera joateko asmoa baitu eta uztailean Ande mendietara, Boliviara.

Udala autoen abiadura murrizteko neurriak aztertzen

Udala aspalditik ari da herri gunean kotxeen abiadura txikiagotzeko neurrien bila. Azkena, Arizkorreta futbol zelai berriaren ondoan jarritako banda edo koskak izan dira. Herri sarrera eta futbol zelairako sarrerak bat egiten duten leku horretan, autoek abiadura moteltzea da banda horien neurria. Uztailean jarritako lau bandak erdira murriztu dituzte, eta orain bi besterik ez daude. Hala ere banda horiek behin behinekoak dira udaletxeko iturrien arabera.

Oraindik inolako proiekturik ez dagoen arren, Udalak Lima fabrika paretik abiatuta herri gunera bitarteko zati guztian, oinezkoentzako bidea zabaldu eta errepidea estutuko lukeen irtenbidea aztertzen ari da. Futbol zelai berriaren parean gainera oinezkoentzako espaloia eta aparkamentu berriak hartuko lituzkeen gunea egokitztea ere aurrikusten da.

Futbol denboraldiaren hasierak nabarmen utzi du, asteburuetan jende asko biltzen dela Arizkorreta zelaian. He-



Arizkorreta pare honetan azken hilabeteotan bandak saihestearren "jendea, autotxokeetan ibiltzen den pareko" ibili da Udalaren ustez.

rriko talde federatuen partiduez gain, larunbatero futbol 7 erako txapelketako 6 partidu jokatzeko dira. Lehiaketan ari diren 13 taldeetatik 3 baino ez dira herrikoak. Besteak kanpotik etortzen dira eta futbol zelaia eta errekaaren artean aparkamentua egokitu duten arren, hura betetakoan, autoak errepidearen alboan aparkatzen dituzte. Udala az-

tertzen ari den aukerak, futbol zelaiaren parean 60 aparkamentu egiteko aukera ematen du.

Asmo horrekin batera, Udalak herri gunean kotxe eta bestelako ibilgailuak geldiago ibili daitezkeen beste hainbat aukera aztertzen ari da.

Xabier Urteaga

Herri Irratia

Herri Irratiak Idiazabali eskainitako saioa egingo du bihar, urriak 30, herri-
tik bertatik. Saio horretan hainbat herri-
tarrek eta herriko taldek hartuko dute
parte.

Okerrak zuzenduz

Aurreko alean, Bikuña kaleko urbaniza-
zioari buruzko albistean, bertako lanak
Udalak ordainduko dituela genion. Da-
tu hori ez da zuzena, albiste berean ai-
patzen zen moduan, kalearen gaineko
terrenoan hiru etxebizitza egingo dituz-
te, eta horien jabeek ordaindu beharko
dituzte orain egiten ari diren urbaniza-
zio lanak.



Jesus Aranburu, Gernikan irabazle

Urriko azken asteleheneko Gernikako
azoka ospetsuan, gazta lehiaketa irabazi
du aurtan ere Jesus Aranburu idiazabal-
darrak. Honela, hirugarren urtez ja-
rraian irabazi du Gernikako saria. Baina
beste bi sari ere, txikiagoak, irabaziak
ditu Bizkaia aldean.

Ordizian bezala, Gernikan ere gazta
enkantea edo subasta egiten da eta Ma-
xi Eroskik eraman zuen Jesusen gazta
erdia, 320.000 pezetaren truke. Diru ho-
ri Gernikako zaharren etxe baterako
izaten da.

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
☎ 943 88 72 76

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

Kultur etxea eraskustoki



Urriaren 18tik Kultur Etxean antolatu den erakusketa ikus-
teko aukera gaur bukatuko
zaie naturaren maitale diren
lazkaotarrei. 'Gipuzkoako
zuhaitz eta zuhaixken herba-
rioa' izenburupean, Jesus
Lopez Irastorza biologoak
gure inguruneari buruzko
ezagutza aberasteko eskaini-
tza luzatu digu azken bi aste
hauetan.

Erakusketa honek ordea,
laister izango du ordezkioa.
Baina honako honetan kiro-
lari tokatuko zaio txanda.
Euskal sena eta tradizioari
estuki lotutako kirola da, du-
darik gabe, pelota. Hori dela
eta, Udalak gai honen ingu-
ruan erakusketa antolatu du.
'Euskal pilota jokua' lelope-
an lazkaotarrek kirol honi lo-
tutako datu eta xehetasun
guztiak ezagutzeko aukera
paregabea izango dute.

Jaietara hurbilduz

Festa beti izan da euskaldu-
nen artean sutsuki goraipa-
tua. Horregatik, ezuste polita
da Maizpidek azaroaren
5erako antolatuta daukana.
"Gipuzkoako Jaiak: udazke-
na eta abenduaren hasiera"
izeneko ikusentzunezko
emanaldi hau arratsaldeko
hiruretan hasiko da. Gure
probintziako jai egunen ibi-
laldi hau Javier Juanez-en es-
kutik datorkigu. Besteak bes-
te, honako hauek izango dira
deskribatuko direnak: Zega-
mako San Martin azoka;
Urretxuko Santa Lutzi feria,
baita bertako Donardegi Ba-
serrian burutzen den txerri
hilketa ere; San Andres eta
San Nikolas eguna Seguran;
Lazkaoko Astotxo festa; San
Sebastian eguna...

Elordi Garcia



Belen Gonzalez atxilotua

4. orrian adierazten dugun bezala urriaren 25ean polizia fran-
tziarrak Pauen atxilotu zuen Belen Gonzalez lazkaotarra.
1998ko urriaren 17an Errepublika Dominikarretik ihes egin
zuenetik ez zen bere berririk. Espainiar prentsaren esanetan
maiatzaren 19an ETA eta Espainiako gobernuak Suizan izan
zuten bileran izan zen Belen. Atxilotu zuten egunean bertan
herriko kaleetan manifestazioa egin zuten 250 bat lagunek.
Egun horretakoa da argazkia. Ondorengo egunetan ere gauza
bera egitekoak ziren.



Gazte festa arrakastatsua

Urriaren 23an Lazkaon sortu zen giroa ez zen nolanahiko
izan. Goizez jende gehiegirik ez bazen ere, eguerdirako jada
hasi ziren kale bazterrak betetzen. Frontoi zaharrera hiru-
rehun bat gazte hurbildu ziren bazkaltzera eta bertan sortu
zen martxak goizalderarte iraun zuen. Ez ziren ez atzera gel-
ditu ez herriko ez kanpoko gazteak gauean euri zaparradaren
bat egin bazuen ere. Beraz, hurrengo urterako ere prestaketak
egin beharko dira.

Auto EASO

ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33

BEASAIN

LAZKAO

GARAJEA

RENAULT

AGENTZIA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Giro ederrean ospatu zuten jubilatuek euren eguna



Urriaren 10ean ospatu zuten Gabiriako jubilatuek bere urteroko eguna eta den-denak bildu ez baziren ere, gehienak hantxe zeuden Udalak beraientzat antolatu ohi duen ospakizun hori jai-giroan eta umore ederrean igarotzeko asmoz.

Eguerdiko hamabietan Meza Nagusia izan zuten eta jarraian herriko dantzarien saioa. Ondoren, "Osinalde" elkartearen bazkaria izan zuten eta ohitura den bezala bertso-lariak eta trikitilariak ere hantxe izan ziren.

Udalak urtero bazkaltzera

joaten diren bi zaharrenei, aurretik saririk jaso ez badute jakina, oroigarri gisa oparibat egin ohi die eta aurtengo honetan Zoazolako Sabinak, 84 urte, eta Kataraingo Ramonek, 82 urte, jaso dute aipatutako saria. Dena den, bazkaltzera joandakoen arte-tik zaharrena Zantagoitiko Antonio Olariaga genuen, 93 urtekoa.

IV. Errezil Lehiaketa azaroaren 21ean

Herritarren artean egin ohi den errezil sagarren lehiaketa azaroaren 21ean izango da



Idi haragia berriro Goierriko harategietan

Orain dela zenbait urte gure herrian idi dexente baldin baziren ere, ohitura hori galdu egin zen traktoreak sartu zirenean eta ondorioz gaur egun ez da erraza idiak ikustea gure base-rietan. Dena den, Kortatarrek, idi-demak direla eta, idi dexente jarri dituzte eta horietako bi joan den ostiralean hil zituzten haragitarako.

Idi haundienaren pisua zela eta kuriositate haundia zegoen zenbat erralde pisatuko zuen jakiteko eta zenbaitek uste adina pisatu ez bazuen ere, pisu ederra bota zuen: bizirik, 920 kilo eta kanalean 517.

Zazpi urteko idia zen eta aspaldian idi haragia jateko aukerarik izan ez denez, jan nahi dutenek Azurmendi, Bidegain eta Montoia harategietan izango dute salgai.

aurtengoan eta parte hartu nahi dutenek udaletxean eman beharko dute izena azaroaren 13a baino lehen.

Marrazki eta margogintza ikastaroak

Gabiriako Udalak marrazki eta margogintza ikastaroa

antolatzeko asmoa du eta horretarako interesaturik daudenek udaletxera deitu behar dute azaroaren 15a baino lehen izena emateko. Interesatuen kopurua dute ikastaroa antolatu ala ez. Ikastaroa Segurako Jose Mari Telleriak emango du.

Gabino Murua

Udalak, azaroaren 1aren inguruan hainbat ekitaldi prestatu du, ohiko gaztaina janarekin batera.

Arratsaldeko 6etan, irailean jokatu zen VI. Argazki Rallyko sari banaketa egingo da eta bertan aurkeztutako dia-



positibak ere ikusgai izango dira.

Ondoren, izango da hainbeste tradizioa eta ospea duen gaztaina jana.

Behin tripa bete-ta, gaueko 9etan, Mikel Markez eta Pako Aristiren 'Tri-buaren hitz gal-

duak' izeneko saioa izango da, Bikario-etxean.

Jubilatuaren eskulanak

Egun hauetan, urriaren 30etik azaroaren 1era, jubila-tuek egindako eskulanak ikusgai izango dira Bikario-etxean.

Ataunen ere bada musika zaletasunik



Santa Ageda koplak bertso-afarian.

Ataunen musika arloan genuen hutsunea betetzeko asmoz, Santi Etxeberrriaren ardurapean dagoen Udaletxeko kultura sailak, musika ikastaroa antolatu zuen iaz. Hutsune hori benetan nabarmena zen, txistulari taldea desegin zenetik ez baita musika instrumenturik ikasteko aukerarik izan herrian. Zerbait ikasteko gogo zuenak Beasain, Lazkao edo Ordiziara joan beste irtenbiderik ez zuen, beraz. Horrela, eta Nerea Barandiaran lazkaotarraren ardurapean, solfeoko ikastarari eman zitzaion hasiera joan den urtean. Aurten ordea, eskaintza zabaldu eta instrumentu desberdinak ikasten hasiak dira herriko hainbat haur eta gazte. Hala nola, solfeoa eta pianoa irakasteaz Nerea Barandiaran ardura-tzen da. 15 ikasle ditu solfeoan eta 7 pianoan. Trikitixa eta pandero ikastaroaren irakaslea Amaia Zubeldia ordiziarrak da. Bere ardurapean 9 ikasle ditu, 6 trikitixa ikasten eta 3 panderoa ikasten. So-nua jotzen ikasteko aukerarik ere bada. Hortaz Lurdes Lerma ormaiztegiarra ardura-tzen da. Azkenik, Zizurkilgo Beñat Barandiaranek gitarra jotzen irakasten du. 3 ikaslek dihardute horretan.

Garaipen erraza Ataun Generalik

Joan den larunbat arratsaldean ez zen giro Auzoeta kiroldegian, Ataun Generali taldeak 6 eta 2 irabazi baitzion Ondarre taldeari. Lehen zatian ataundarrak aurreratu ziren markagailuan Joseba Goikoetxeak sartutako gol bati esker baina Ondarre taldekoak ere ez ziren atzera gelditu eta lehen zatia berdinduta amaitu zuten. Biga-

rreren zatian berriz, ataundarren nagusitasuna nabarmena izan zen eta horren ondorio Inñigoren bi golak eta Jon, Haritz eta berriro Joseba Goikoetxeak sarturiko gol banak. Sasoi honetako laugarren partidua honekin lehen garaipena lortu dute, beste bi berdindu eta bat galdu dute, lau puntu lortu dituztelarik.

Bestalde, 2. Mailako Ataun Bitor Jatetxeak Zutate F.T.ren aurka jokatu beharreko partidua bertan behera gelditu zen, aurkariak ez baitziren agertu.

Neskak ere ez dabilta Nolanahi. Jubenilek partidua bi jokatu eta biak irabazi dituzte, 8 eta 0 lehenengoan eta asteburu honetan 6 eta 0 Astigarragako Mundarro taldearen aurka etxean.

Jubenilekin jarraituz, baina oraingoan mutiletan, Ataun Zubikoeta Gasolindegia taldeak jokatu dituen bi partiduetan garaipena lortu

Bideak hormigoitzen

Irailaren 9tik urriaren 18ra bitarteko epean, 4 baserri bide hormigoitu dira. Bide bakoitzaren gastuak honela banatu dira: Goimenek % 65eko dirulaguntza eman du bakoitzarentzat, Udalak bestalde, %15 eta gaineratik %20a eskulanaren kontzeptuan ordaindu da. Bide horiekin zerikusia duten baserriak eta basoen jabeek Udalak izendatutako bi ofizialei bidea hormigoitzen lagunduz, hain zuzen. Bideotako lanak osatzeko bide ertzeko erretena egitea bakarrik falta da. Horretan hasteko asmoa azaroaren 15ean dutela azaldu digu mendi arduraduna den Jexux Goikoetxeak.

Aldarreta gainetik Azaola zaharrera doan bidea. Aurrekontua: 9.119.920 pezeta. Horietatik Goimenek 5. 927.948 pezeta. Hormigoitzeko distantzia: 943 metro. Epea: Irailaren 9tik irailaren 22ra.

Arratiñetik igartzatera: Aurrekontua: 5.499.662 pezeta. Horietatik Goimenek 3.344.875 pezeta. Hormigoitzeko distantzia: 647 metro. Epea: Irailaren 23tik urriaren 6ra.

Sorozabalgo bidea: Aurrekontua: 4.157.237 pezeta. Horietatik Goimenek 2.702.204 pezeta. Hormigoitzeko distantzia: 475 metro. Epea: Urriaren 7tik 13ra.

Bedamako bidea: Aurrekontua: 2.606.114pezeta. Hormigoitzeko distantzia: 306 metro. Epea: Urriaren 14tik 18ra.

Hiru auzoetako korrikaldia azaroaren 21ean

San Martin auzoko festak inguratzen ari zaizkigu eta hainbat urtetan ospatu den **Hiru Auzoetako Korrikaldia** egitekotan dira aurten ere. Dirudienez, hainbat arazo izan dira eta ez antolatze-ko arriskuan ere egon ondoren, zorionez, azaroaren 21ean ospatuko da hiru auzoak zeharkatuko dituen lasterketa.

du. Azkena, joan den asteburuan Oñatiko Aloña-Mendi taldearen aurka, 2 eta 0ko emaitzarekin.

Labur-labur

● **Santu Guztien eguna** datorren astean denez, joan den urriaren 23tik irekita daude hiru auzoetako hilerrietako ateak. Goizeko 9etatik arratsaldeko 6etara bitartean egongo dira irekita azaroaren 5a bitarte. Aldi berean, zaberrak botatzeko hilerrien atarian egongo diren edukinontziak erabiltzeko deialdia zabaldu du udalak.

● Udalak jendaurrean jarri berri du **San Martingo alde-zaharra eraberritzeko plana**. Alegazio eta oharpenak egiteko epea azaroaren 5ean amaituko da.

● Azken asteotan **hiru heriotzen berri** izan dugu herrian. Elizalde-etxeko Juliana eta Ugalde-Txikiko Teodora Arratibel ahizpak. Eta Otxotxon bizi izandako Manuel Aierdi. Doluminak sendiari.

● **Akatsak zuzenduz.** Goierriarra-ren 166. zenbakian argitaratu zen Inaxio Aierberen omenaldiari buruzko kronikan, opari emaileen artean Ataungo alkatea aipatzen nuen. Gaizki ulertua zuzendu eta alde biei barkamena eskatzea da ohar honen xedea.

Agurtzane Bikuña

Ezkio-Itsaso

Hainbat etxebizitza berrien eraikuntzaren ondorioz, Ezkio-Itsaso bizilekutzat auke-ratu duten familien kopurua etengabe igotzen ari da. Gehienetan etxebizitza lor-tzen dutenak gazteak dira. Honen ondorioz, gure he-rrian gero eta haur kopuru handiagoa dugu.

Beste herri batzuetan ego-era hau nahiko arrunta bada ere, Ezkio-Itsason azken ur-teetako nondik norakoa iku-



siriki, kasu berri eta pozga-riaren aurrean aukitzen ga-rra.

Garai berri hauetara ego-kitzeko asmoz, Udalak jolas parke berria eraikitzea eraba-

ki zuen. Instalazio berri hau, Santa Luzia Anduaga auzoan kokatzen da, auzoa zeharka-tzen duen errepidearen eta Udaletxearen alboan.

Egia esan, kokapenaren

Jolas leku berria

eraginez, herritarrez gain, kanpoko hainbat pertsona, haurrei atsegina emateko as-moz hurbiltzen da parke be-rrira.

Jolas leku hau obra txiki bat bakarrik bada ere, Ezkio-Itsasoren aldetikaren adie-razgarri bihurtu da. Azken urteetan ez baitzen ohizkoa guraso gazteak eta horrelako haur kopurua gure herrian zehar ikustea.

Joseba Etxezarreta

Legorreta

Astean zehar hainbat ekitaldi izan badira ere, asteburu be-te-betea dator. Adin eta gusto ezberdinentzako ekitaldiak dituzue aukeran.

Gaur, urriak 29, Amaia Vazquezek 'Familiaren bar-rruko komunikazioa' hitzal-dia eskainiko du, Ugao He-rri ikastetxean, 16:00etan.

16:30ean, jubilatuek toka eta igel txapelketa izango du-te. Jarraian, bi pelikula ikus-

teko aukera izango dira Herri Zineman: 17:00etan, 'El principe de Egipto' eta 22:00etan, 'La máscara del zorro'.

23:00etan, V. Mus txapel-keta jokatuko da Bilkoinen.

Bihar, urriak 30, hau-rrantzako jokoekin hasiko da eguna. Goizeko 11etan, he-rriko enparantzan haur joko-ak izango dira eta arratsalde-an, 6etan, 'Oiloloke Xoua'

ikuskitzuna izango da enpa-rantzan bertan. Gauerako, musika emanaldia antolatu da pilotalekuan, Mikel Ur-dangarin kantari bizkaitarra-ren eskutik.

Igandean azkenik, goiz partean, 11:00etatik 14:30-era, Iparraldeko Artisanautza feria izango da, trikitilari-ek alaitua. 13:00etan, buruhan-diak eta herriko dantzarien jardunak izango dira.

Kultur astea iganderarte

Gipuzkoako zuhaitzen erakusketa

Kultur aste osoan zehar, 'Gi-puzkoako zuhaitzen eta zuhaixken herbarioa' erakus-keta ikusgai dago Kultur Etxean, Elhuyar Kultur el-karteak antolaturik. Igande-rarte egongo da zabalik. Or-dutegiak: ostiralean 17:00-etatik 20:00etara; eta larun-bat eta igandean, 12:00etatik 14:00etara.

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:


Lanegunetan:

© 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGURUOK

- ✳ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✳ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



● Pintxo hotz
eta beroak

● Ogiltarteak

Jai zoriontsuak
denot!

Udazken kulturala gaur hasiko da

Gaur bertan, urriak 29, emango zaio hasiera aurten-go Udazken kulturalari. Azaroaren 14a bitarte egitarau zabala prestatu da. Ondorengo ekitaldiak izango dira nagusienak.

Lehiaketak

● **Jendaurreko VIII. Margo Sarriketa: Urriak 31.** Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea. Gaia, Beasaingo herria eta bere auzoak izango du eta edonork har dezake parte. 13:30etik 14:30ak bitartean aurkeztu beharko dira lanak eta ondoren nahi duenarentzat bazkaria izango da Arrano Elkartean.

● **Argazkigintzako VIII. Rallya: Urriak 31.** Antolatzailea: Argizpi Argazkizale Elkartea

Lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte. Gaiak zozketaz banatuko dira izenematean bertan.

● **XII. Errezil sagar eta Postudotoretasun lehiaketa. Azaroak 9.** Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea. Azoka berezia ospatuko da egun hone-tan, eta bide batez, errezil sagarrak onena eta posturik dotoreena aukeratuko dira.

Hitzaldiak

● **Osasunari buruzkoa. Urriak 29. 19:30ean** Antolatzailea; Sanatana Dharma.

● **Menopausia.** Asmubek antolatuta. **18:30ean.** "Psikologiaren ikuspuntutik". **Azaroak 4.** Udaletxeko Batzar Aretoan.

"Patologiaren ikuspuntutik". **Azaroak 11.** Udaletxeko Batzar Aretoan.

● **Autoestimaren boterea. Azaroak 5. 19:30ean.** Antolatzailea; Sanatana Dharma.

● **Grafologia. Azaroak 9. 19:00etan.** Antolatzailea. Udal Euskaltegia. Irune Ibarrenaren eskutik Udaletxeko Batzar Aretoan.

Antzerkia

● **Ordiziako Antzerki Tailerra. Urriak 29. 20:30ean.** Ernesto Caballeroren "Auttoa" antzerkia antzeztuko du euskaraz Usurbe Antzokian.

● **"Imperdible" talde sevillarra. Azaroak 11. 22:15ean.** Lorcaren "Un poeta en Nueva York" lana eskainiko du Usurbe Antzokian.

● **Golden Apple Quartet. Azaroak 12. 23:00etan.** Erdarazko "Radio Golden" antzerki-ikuskizun musikala aurkeztuko du Usurbe Antzokian.

Haurrentzako ekitaldiak

● **"Igartz" haurrentzako parkea. Azaroak 1.** Goizaldean joko erraldoiak izango dituzte eta arratsaldean pailazoen emanaldia. Igartzako parke-

Labur-labur

● **Zilarrezko ezteiak.** Aurten zilarrezko ezteiak egin eta Beasainen bizi diren bikoteak elkartu nahi ditu Andra Mari Zeruratuaren Parrokiak. Horretarako festatxoa antolatu dute azaroaren 6rako. Iluntzeko 7etan meza izango da eta ondoren meriendatxoa Seroraetxean.

● **Presoen aldeko** bi ekitaldi izango dira Senideak elkarteak antolaturik datozen egunetan. Azaroaren 1ean, 'Euskal Presoak Euskal Herrira' bandera balkoian jartzeko deia egin da. Banderak salgai izango dira Zubimuzu plazan, egunean bertan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. Azaroaren 13rako, enkartalada mugikorra antolatu dute, plazan, 12etan, Odolki txapelketa dela eta.



Beasaingo baserriak

Beasaingo baserrien argazki-bilduma osatuz liburuxka bat kaleratuko du Josetxo Zufiaurre etnografoak. Aurkezpena azaroaren 10ean egingo da Udaletxeko Batzar Aretoan 20:00etan.

Bertan aipatzen diren 177 baserrietatik, hamaseiren argazkiak lortzerik ez du izan, aspaldi erori edo desagertutakoak direlako. 161 baserriren argazkiak agertzen dira beraz. Itxura zaharrena zeuzkatenen argazkiak. Eta hauen gainean baserri bakoitzaren antzinatasuna. Baserriak noizkoak diren zehatz-mehatz jakitea ia ezinezkoa bada ere, agiri zaharrez baliatu da. Bertan baserrien izenak azaltzen direnean, garai hartan behintzat bazirela adierazten dute. Argazkien azpian berri- z, baserrietan bizi izandu ziren familien abizenen zerrenda agertzen digu. Esan bezala, guztira 177 baserri, 280 bizitzetan banatuta gutxi gorabehera, eta 1500 bat lagun biziko zirenak.

Liburuxkaren banaketa Udazken kulturala amaitzen denean egingo da Ezkiaga Auzo Etxean.

an izango da bainan euria eginez gero Loinazko San Martin Plazan.

● **Takolo, Pirritx eta Porrotx Pailazoak. Azaroak 6.** "Baserrian" emanaldia aurkeztuko dute Usurbe Antzokian bi emanaldi desberdinetan; 16:00etan eta 18:00etan. Sarrerak aldeztu aurretik salgai egingo dira 600 ptan.

Bertsolari txapelketa

Bertsolari txapelketako final laurdeneko saioa, **azaroaren 5ean** ospatuko da Usurbe Antzokian gaueko **10etan**. Ordizia eta Urnieta-Andoain taldeak arituko dira final erdi- dietarako txartela lortzeko lehian.

Musika jaialdia

Goierriarraren 10. urteurrena ospatzeko, Euskaldunon Egunkariarekin batera, kontzertua antolatu da **azaroaren 6rako** Beasaingo Antziar kiroldegian. Lau talde izango dira: Hiru Truku, Ige-laren badna, Ruper Ordorika & Mugalarik eta Tapia eta Leturia Erromeria Patxi-rekin. Gaueko **10,30etan** hasiko da eta 3 ordu inguruko iraupena izango du.

Nekane Altuna

HIRU TRUKU

Igelaren Banda

Igelaren Banda

Tapia ta Leturia

Tapia ta Leturia

Ruper Ordorika
and **Mugalaris**

Ruper Ordorika
and Mugalaris

SARRERA:

1000pta bertan erosita

800pta aurrez erosita

Azaroak 6

Gaueko 22:30

Antzizar Kiroldegia

Beasain

SALMENTA LEKUAK:

Zumarraga / Urretxu: Aldiri • Ormaiztegi: Itxune erretegia • Beasain: Loinaz taberna
Ordizia: Pottoka taberna • Ataun: Bittor taberna • Lazkao: Alboka taberna
Zaldibi: Joxepane taberna • Idiazabal: Xume taberna • Segura: Imaz taberna
Tolosa: Shanti taberna • Andoain: Irunberri taberna • Donostia: Bilintz liburudenda

Laguntzailea:



Beasain kultur batzardea

Antolatzaileak:

euskaldunon
Egunkaria

HAMABOSTEKARIA
GOIERRITARRA

Jaien aurretik kultur astea eta mendi astea



Azaroa sartzearekin batera gogora datozkigu gure herriko Ander Deunaren jai nagusiak. Dena den jai horietarako ataria izango diren beste hainbat ospakizun ere antolatu direla jakinarazi nahi da da. Hain zuzen azaroaren 5etik 14ra bitartean II. Kultur astea ospatuko da eta azaroaren 15etik 21era, mendi-ko astea.

Kultur asteari dagokionez esan behar sendabelar, estetika, dietetika... gaiei buruzko hitzaldi-praktikoek, jubilatuen hitzaldiek, I. dantza sueltoko txapelketak eta dantzari txiki egunak leku berezia izango dutela azpimarra dezakegu.

Mendi asteari dagokionez berriz, laburpen gisara aipatu, gure herrian ondorengo emanaldi eta ekintza izango direla. Azaroaren 15ean Javier Fernandez 'Ordesako xarma' emanaldia; azaroaren 16an Juanito Oartzabal '14 zortzimilakoak'; azaroaren 17an Andoni Areizagaren Patagoniari buruzko emanaldia; azaroaren 18an Nepali buruzko Jose Ramon Agirre 'Marron' en emanal-

dia eta azaroaren 19an Juanjo San Sebastianen Nahanni errekarren jaitsierari buruzkoa.

Kultur astearen egitaraua:

Azaroak 5, ostirala:

17:30ean: Sendabelarrak, dietetika eta elikadura hitzaldia, Zorion Intxaustiren eskutik, Kultur Etxean.

Azaroak 6, larunbata:

19:00etan: Ormaiztegiko I. Dantza suelto txapelketa, Zubipe kiroldegian.

Azaroak 6, igandea:

12:15ean: Ozenki Otxotearen kontzertua, Elizan.

Azaroak 8, astelehena:

17:30ean: Estetika, makilatzea, manikura, azalaren zainketaren inguruko argibideak eta abar, hitzaldia, Kizkitza Barrenetxearen eskutik, Kultur Etxean.

Azaroak 9, asteartea:

19:30ean: Dieta mediterranea, jateko ohitura txarren ondorioak, hitzaldia Ane Miren Urangaren eskutik, Kultur Etxean.

Azaroak 10, asteazkena:

17:30ean: Jubilatuentzat hitzaldia: zahartzaroa itxaropentsu bizi, Mercedes Acedaren eskutik, Kultur Etxean.

19:30ean: Estetikari buruzko hitzaldia Kizkitza Barre-

netxearen eskutik, Kultur Etxean.

Azaroak 11, osteguna:

17:30ean: Jubilatuentzako hitzaldia: oinezkoen segurtasuna, bizitza oso bat aurretik, Kultur Etxean.

19:00etan: Haurrentzako Arrate Leunda ipuin kontalaria, Kultur Etxean.

Azaroak 12, ostirala:

17:30ean: Jubilatuentzako hitzaldia: memoria ezagutzea eta bultzatzea, Mercedes Acedaren eskutik, Kultur Etxean.

19:00etan: Sendabelarrak, dietetika eta elikadurari buruzko hitzaldia, Zorion Intxaustiren eskutik, Kultur Etxean.

Azaroak 14, igandea: dantzari txiki eguna:

11:00etan: Dantzariei ongi-etorria.

11:00etatik 13:30era: Kalejira eta dantza jaialdia.

14:00etan: Bazkaria.

17:00etan: Dantza ekitaldia.

Aitziber Murua

Egur taila ikastaroa azarotik aurrera

Iazko urtean Udalak antolatutako egur taila ikastaroak izan zuen arrakasta kontuan izanik, berriz ere ikastaroa antolatzearabaki da. Azaroaren 4an hasiko da eta hiru hilabeteko iraupena izango du. Ostegunetan izango da, 18:00etatik 20:30era. Iaz bezala Zegamako Jabier Arrieta izango da irakaslea.

Ikastaroan parte hartu ahal izateko izenak urriaren 30a bitartean liburutegian eman beharko dira, arratsaldeko 5etatik 6etara, egunero, ostegunetan izan ezik. Ostegunetan 6etatik 7etara edo 943889696 telefonoan. Matrikula: 3.000 pezeta.

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Mikel Alberdi: "Tomas Zumalakarregi ez du ematen pistarik aberriari"

Elkarlanean argitaletxearen 'Biografiak' sailak argitaratu du Tomas Zumalakarregi jeneral karlistaren biografia. Mikel Alberdik idatzi du liburua, Ormaiztegiako Zumalakarregi museoko artxibalaria eta liburuzaia denak. Mitoak eta leiendak baztertu eta dokumentazio idatzietan oinarritutako idazlana egin du Alberdik eta zenbait mito bertan behera bota ditu. Tomas Zumalakarregi aitzakia hartuta, Euskal Herriko garai garrantzitsu bat aztertu du, hainbat euskarazko lekukotasuni tarte eginez.

Abertzalea, patata tortillaren asmatzailea, Frantsesadan Zaragozako setioan parte hartu zuela, Iriarte Erdikoa baserrian jaioa dela... hainbat mito sortu izan da Tomas Zumalakarregi jeneral karlistaren inguruan. Biografia hau idazterakoan, dokumentu idatzietan oinarritu da Mikel Alberdi, eta ez mito eta esamesetan. Benetakoa biografia idatzi du.

Abertzalea al zen?

Tomas Zumalakarregi abertzalea zela iritsi da gaur egunera. Orain dela 10 urte, Zuberoan Zumalakarregiri buruzko pastoralak egin zuten eta Zumalakarregi euskaldun eta abertzale bezala ateratzen zen, espainolen aurka aritu omen zen borrokan. Agustín Xaho zuberotarrek ere berdin idatzi zuen Tomas Zumalakarregi hil eta handik urtebetera. Baina "biografia irakurritz gero, Tomas Zumalakarregi militar espainiar bat zen, ez du ematen pistarik pentsatzeko abertzalea zenik. Gainera astakeria da, ezin zen abertzalea izan, ez zen abertzaletasunik existitzen. Beraz, ezin dugu gaurko eskema hori aplikatu.

Forzaletasun berezirik ez zaio ikusten. Zumalakarregi idatzitako agirietan beti argi agertzen da erregearen alde ari dela, ez foruen alde".

Tomas Zumalakarregi hil eta berehala hasi omen ziren idazten, Tomas Lak Euskal Herriko errege izateko asmoa zuela eta abar. "Hori gezurra da, baina gezur hori zergatik sortu zen jakitea da interesgarriena. Xahok 'Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques' liburuan Zumalakarregi-ekin egindako elkarrizketa bat ateratzen da. Badakigu elkarrizketa hori ez zela egin, ez baitzioten utzi Xahori Zumalakarregirengana joaten. Xa-

Batez ere antolakuntza mailan erakutsi zuen izugarritzko trebezia.

ho errepublikazale frantses bat bezala hartu zuten karlistek eta ez zioten utzi etortzen. Xahok elkarrizketa guztia asmatu zuen, baina garrantzitsuena ez da hori, pertsona batek garai hartan, abertzale-



Mikel Alberdi, Zumalakarregiren biografiaren egilea.

letasuna jaiotzeko oraindik 50 urte falta zirenean, irakurketa hori egitea baizik. Zazpi lurralde garela, denok bat garela eta gerra honetan ari dira hegoaldekoak espainolen aurka, esaten zuen. Garai hartan hori pentsatu eta idazteko, zerbait bazen. Arrakasta eta oihartzuna izan zuen eta jendeak hori sinesteko gogoak zegoela adierazten du".

Militar zuhurra

Militar ospetsua zen Tomas Zumalakarregi. Batez ere bere bizitzako azken urte eta erdian egin zen ezagun ormaiztegiarra. Borroka asko irabazi ia Euskal Herri osoa, hiriburuak izan ezik, bere menpe jarri zuen. Dena den, Mikel Alberdik argi dauka, 30 urte gehiagoz bizi izan balitz, seguraski ez zela gaur egun mito izango. "Garaipen asko zituela hil zen, baina denbora gehiago bizi izan balitz, porrotak ere izango zituen eta agian ez zen hainbesteko mito bilakatuko". Batez ere antolakuntza mailan erakutsi zuen izugarritzko trebezia.


"Hori bere etsaiek zein bere aldekoek esaten dute eta frogatuta dago. Bilbon egondako merkataria atzerritar batek esaten zuen, normala zela etsaiek esatea Zumalakarregi militar ona zela, izugarritzko jipoiak jaso zituztela justifikatzeko. Ez zuela ezer asmatu esaten zuen merkataria. Frantsesadan erabilitako taktika berak erabili zituen, gerrilla motakoak. Baina nik uste dut, hortik aurrerako beste pausu bat egin zuela: ez zen gerrillatan gelditu, armada oso bat sortu zuen, Espainiako armadari aurre egiteko modukoa".

Gaspar Jauregi 'Artzaia' urretxuarra izan zuen irakasle, nahiz eta Karlistadan elkarren aurka aritu ziren. Hirurteko liberean gerrillari bezala ibili zen, batez ere Espainiako iparraldean.

Estreinua Loiolan

Lehenengo borrokaldia, Frantsesadan, Zaragozako setioan egin zuela diote mitoei, garai hartako gertakizun garrantzitsuenetarikoa izan baitzen. Baina Zumalakarregiren 'zerbitzu-orriak' (militarrek egindako meri-

karregi militar espainiar bat zen, ertzalea zenik pentsatzeko"



Euskal Heriko historia

Zumalakarregi aitzakia hartuta, Euskal Herriko historia kontatzen saiatu da idazlea, Euskal Herri osoa, Hegoa eta Iparra, kontuan hartuz. Alberdiren ustez, "gaur egun eskoletan baskongadetako historia erakusten da. Gaur egungo estruktura bat eramaten da joan den mendera eta seriotasun piska bat edukiz gero, hori ezinezkoa da. Nafarroa ezin da Karlistadan baztertu; eremu nagusia izan zen. Iparraldea ere ezin da baztertu. Gaur egun muga batzuk daudelako, historia ikertzerakoan muga horiek erabiltzea, hankasartzea dela uste dut, nahita egindako hankasartzea".

tuen zerrendak osdatutako ziurtagiriak) dioenez, 1812an Loiolan borrokatu zen lehenengo aldiz, Jauregi-ekin batera.

Absolutisten aldekoa zen Zumalakarregi. Zetorren berri horren aurka egin zuen borrokan. Bere anaia zaharagoa, Migel Antonio, eta bere irakaslea, Jauregi, liberalak baziren ere, Tomas karlista zen. Bere irakasle izandakoaren aurka borroka egiteko aukera izan zuen.

Anaiak egin zuen liberalen aldera eramateko ahalegina, baina ez zuen lortu. Ez dirudi bi anaien artean harreman handiegirik zegoenik.

Txapelgorriak: liberal bolondresak

Txapelgorriak karlistak zirela uste izan da. Baina Mikel Alberdik argitu duenez, liberal bolondresei deitzen zieten txapelgorri. "Karlistek ere erabiltzen zituzten txapel gorriak, baina karlistek ez zeu-

katen arautua txapel gorria erabiltzea, zeukatenaren arabera izaten zen. Liberal bolondres euskaldunak elkartu eta gorputz militar bat sortu zuten eta hauek ziren txapelgorriak. Jauregi zuten buru eta txapel gorria erabiltzen zuten. Peseteroak ere deitzen zieten, egunean pezeta bat irabazten zutelako. Oso etsai gaiztoak ziren karlistentzat, herritarrek baitziren. Errazago zitzaien espainiarren aurka aritzea, inguruko ezagunen aurka baino".

Petrikiloa

Bilbon zauritu zuten Tomas Zumalakarregi. Inguruan mediku faltarik ez bazuen ere, Zeraingo Frantzisko Telleria 'Petrikilo'arengana eramateko eskatu zuen. Ardien hezurak konpontzetik gizakienak osatzera pasa zen zeraindarra. Ezizena zuen Petrikilo eta gaur egun ofizio bezala ezagutzen dugu petrikilo. "3 mediku zituen ondoran zauritu zutenetik, baina Zegamara, petrikiloarengana joatea nahi zuen. Bataren eta bestearen akabatu egin zuten. Izugarritzko konfidantza zuen petrikiloarengan, bere aurrean zauri larriak sendatu baizikion Jauregiri aurreko gerra batean. Medikuek erabiltzen zuten sistema zintifikoa, odolustea izaten zen, eta limonadak hartu araztea. Azkenean, bala ateratzen, hil egin zen. Dirudenez, bala ateratzek kalte egin zion, baina ziurrenik ordurako oso gaiztotuta edukiko zuen zauria". Tomasi ateratako bala, Zegaman paseatu zuten, erlikia moduan, jeneral karlista bizirik

aterako zelakoa. Biharamonean hil zen.

Burugogor jarri zen Zumalakarregi, Zegamaraino iritsi nahi zuen, nahiz eta Bilbotik Zegamarako bidean, Petrikiloarekin Legution topo egin. Segurtasun kontuagatik joan nahi omen zuen Zegamara.

Mitologiaren arabera, pozoindu egin zutela esaten da, karlisten artean ere etsai asko zituela eta.

Jaiotetxea eta patata-tortilla

Tomas Zumalakarregi Ormaiztegiko Arandi baserrian jaioa da, eta ez Iriarte Erdikoan, orain arte esan izan den bezala. "Ormaiztegin Zumalakarregiren museoa Iriarte Erdikoan dago eta hona etorri ginenean ormaiztegiarrek esaten ziguten Zumalakarregi Arandi baserrian jaio zela eta ez Iriarte Erdikoan. Itxura denez, haurtzaroa pasatu zuen Tomasek bertan. Konbentzio gerra hasi zenean joan omen ziren, Arandia herritik oso hurrun zegoelako-edo", dio Alberdik.

Amaitzeko, bitxikeria bat. Patata-tortilla Tomas Zumalakarregik asmatua dela esan izan da. Kontakizunaren arabera, Tomas baserri batera iritsi eta jateko, arrautzak eta patatak besterik ez omen zituen bertako etxeoandreak. Horrela, patata-tortilla egin omen zuen eta Tomasi asko gustatu. Ipar Amerikan egindako web orri batean, ingelesez, patata-tortilla Zumalakarregik asmatu zuela esaten da. Zumalakarregi museoan dago ikusgai.

ZINEA

GOIENIZ:

Azaroak 4, 'La anguila', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'American pie'.
Ostirala 29: 22:15
Larunbata 30: 19:30 - 22:15
Igandea 31:
16:45 - 19:30 - 22:15
Astelehena 1: 19:30 - 22:15.

LEGORRETA:

Urriak 29, 'El Principe de Egipto' 17:00etan eta 'La Mascara del Zorro' 22:00etan, Herri Zineman.

ORDIZIA:

'Un papa genial'.
Ostirala 29: 22:15
Larunbata 30: 19:30, 22:15
Igandea 31: 16:45

'Locos en Alabama'.
Igandea 31: 19:30 - 22:15
Astelehena 1: 19:30 - 22:15.

'La anguila'

Shohei Imamura
(Japonia, 1997)

Takuro Yam ashitak zortzi urte eman ditu kartzelan bere emaztea hiltzeagatik, ohean beste gizon batekin harrapatu eta geror. Orain baldintzapeko askatasunean irten da, urte luze hauetan bere kuttuna eta espetxe-laguna izan den aingira alboan.

Egun batean Yan ashitak Keiko Hattori ezagutuko du, bere burua hiltzeko zorian dabilen neska gaztea. Emaztea gogorra ekartzen diolako edo, elkarren arteko maitasuna sortuz joango da. Baina Yam ashitaren bizitza argitzen ari den unean, espetxeko kide ohi bat agertuko da haien inguruan eta bat-batean bere bizitza berria, zorionaren bidea eta hainbeste ahaleginez berreskuratu duen gizartearen onspena, arriskuan egon daitezke... bere iragan ezkutua azalera irtetzen bada.

musika

BEASAIN:

Azaroak 2, Alemaniako Studio Vocale Karlsruhe abesbatzaren kontzertua, Andra Maria Zeruratuaren Parrokian, 20:30ean.

Azaroak 6, Hiru Truku, Ruper Ordorika & Mugalaris, Igelaren Banda eta Tapia eta Leturia, Antzizar kiroldegian, 22:30ean.

Azaroak 7, Goierriko txistularien txistu kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 12:30ean.

LEGORRETA:

Urriak 30, Mikel Urdangarin, Udal pilotalekuan, 23:00etan.

OLABERRIA:

Azaroak 1, Mikel Markez eta Pako Aristi, 21:00etan Bikario-etxean.

ORDIZIA:

Azaroak 1, Austriako Stimmen Vocalensemble abesbatzaren kontzertua, Elizan, 20:00etan.

Azaroak 10, Bach musikaldia: Europa Galante, Elizan Nagusian, 20:00etan.

Azaroak 11, Bach musikaldia: Oroith abesbatza, Ainhoa Zubillaga eta Esteban Elizondo organojolea. Elizan, 20:00etan.

hitzaldiak

BEASAIN:

Urriak 29, Osasunari buruzko hitzaldia, Udaletxeko Batzar aretoan, 19:30ean.

Azaroak 4, 'Menopausia psikologiaren ikuspuntutik' hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 18:30ean.

Azaroak 5, 'Autoestimaren boterea' hitzaldia Udaletxeko Batzar aretoan, 19:30ean.

Azaroak 9, Grafologiari buruzko hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00tan, Irune Ibarrenaren eskutik.

Azaroak 11, 'Menopausia patologiarene ikuspuntutik' hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 18:30ean.



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7 BEASAIN

antzerkia

BEASAIN:

Urriak 29, Ordiziako Urrup antzerki taldearen 'Autoa' antzezlan, Usurbe Antzokian, 20:30ean.

Azaroak 7, kale-antzerkia: Pikor taldearen 'Comando Fingilin' lana, Gernika pasealekuan, 18:30ean.

Azaroak 11, Imperdible taldearen 'Un poeta en Nueva York' lana, Usurbe Antzokian, 22:15ean.

erakusketak

BEASAIN:

Urriaren 31tik azaroaren 14ra bitartean, VIII. Aire Zabaleko pintur-lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Usurbe Antzokian.

LAZKAO:

Azaroan, 'Euskal pilota jokua', Kultur Etxean.

LEGORRETA:

Urriaren 31ra arte, Gipuzkoako zuhaitzen eta zuhaixken herbarioa Kultur Etxean.

ORDIZIA:

Azaroaren 21era arte, Antton Mendizabal eskulturgilearen 'Gure Sustraietan' erakusketa, Barrenan.

bertsoak

BEASAIN:

Azaroak 5, Gipuzkoako bertsolarien txapelketako final aurreko saioa, Usurbe Antzokian, 22:00etan: Ordizia Urnieta-Andoainen aurka.

ikusentzuneakoak

LAZKAO:

Azaroak 5, 'Gipuzkoako Jaiak: udazkena eta abenduaren hasiera' ikusentzuneakoa, 15:00etan, Maizpiden.

bestelakoak

BEASAIN:

Azaroak 3, Ipuin-kontaketa Arrate Leundaren eskutik, Ezkiaga Auzo Etxean, 18:30ean.

Azaroak 6, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Baserrian' ikuskizuna, Usurbe Antzokian, 16:00etan eta 18:00etan.

ORDIZIA:

Azaroak 4, Arrate Leundaren ipuin kontaketa, Udal Liburutegian, 17:30ean.

Azaroak 8, Arrate Leundaren ipuin kontaketa, Udal Liburutegian, 17:30ean.

mendi-irteerak

Beasaingo

mendizaleak:

Urriak 31, Andartora.

Azaroak 7, Finalistaren eguna.

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 31, Beteranoen martxa.

Azaroak 7, Elgea-Mugarri-luze-Aumategigaina.

Ikastaro ezberdinak azaroan

Joga:

Ayoc-Yoke Joga klasikoko elkarteak, azarorako erlajazio ikastaroa antolatu du Ordizian eta Lazkaon. Ordizian, astearteetan izango da, 18:30etik 20:00etara, Barrenan; eta Lazkaon, astelehenean 10:00etatik 11:30era, Kiroldegian. Matrikula: 3.000 pezeta. Izena emateko eta informazio gehiagorako telefonoa, 943889770.

Saskigintza:

Azaroaren 3an hasiko da Beasainen saskigintza ikastaroa. Ezkiaga Auzo Etxean izango da, asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara, Eguberriak arte. Izena emateko telefonoa: 943161024.

Elikagaien artisau erako kontserba ikastaroa:

Ikastaro hau azaroaren 4an hasiko da Beasaingo Ezkiaga Auzo Etxean. Astearte eta ostegunetan izango da ikastaroa 18:30etik 21:00etara, Eguberriak arte. Matrikula: Beasainen erroldatuek 9.500 pezeta eta gainerakoek 11.000 pezeta. Izena emateko telefonoa: 943161024.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 88 05 87.

Martxoak 14-15: Urbizu (Kale Nagusia, 8- Beasain). 88 02 32.

Martxoak 21-22: Atorrasagasti (Poligonoa - Ordizia) 88 29 38.

IKASTEK AKADEMIA - AKADEMIA INTEGRALA

HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK GOIERRITARREN ZERBITZUAN

Eskola laguntza:

- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Lehen Hezkuntza (6urtetik)
- ✓ DBH, DBHO
- ✓ Ziklo formatiboak

Unibertsitate maila:

- ✓ Enpresaritza
- ✓ Ingeniaritza
- ✓ Kmika
- ✓ ...

Kontabilitatea:

- ✓ Eskuz, ordenagailuz
- ✓ Contaplus
- ✓ Nominaplus
- ✓ Facturaplus

☎ 943 160 120

Joan Iturrlalde, 5

BEASAIN



Zaldizurreta K.

BEASAIN

Etxebizitzak

saldu

➡ Etxebizitza salgai Beasainen, erdigunean. Berritua eta mobleztatua. 2 logela, egongela, bainua eta sukaldea. 40 m²ko lur sailarekin. 943888441.

➡ Pisua salgai Beasainen. Dena kanpo aldera, oso eguzkitsua. Ganbara ere badauka. 943888318. Deitu 13:30etik 16:00etara eta 20:30etik aurrera.

➡ Etxebizitza salgai Itsasondan. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainuarekin. 689650850.

➡ Etxebizitza salgai Zaldibian, Urtesabel auzoan. 5.000.000 pezetan (negoziagarria). 943161072. Mari Tere.

➡ Etxebizitza salgai Lazkaon, 3 logela, sukalde-egongela, 2 terraza, ganbara eta bainuarekin. 943161357.

Garageak - lokalak

saldu

➡ Garagea salgai, 2 pisuko. Ura badauka. 943-888318. (13:30etik 16:00etara eta 20:30etik aurrera).

errentan

➡ Lokal edo garage bat alokatuko genuke, sei bat kotxe sartzeko. Ez dio ajola zein herritan. 30.000 / 35.000 pezeta ingurukoa. 943882257.

Animaliak

saldu

➡ Seter ingeles txakurkumeak salgai. Desparasituak eta txertatuak. Pedegree onekoak. 943216684 - 670873227.

➡ Euskal ponnyak salgai. 943160919.

➡ Euskal artzai txakurkumeak salgai. 943801467 - 617213340. Txema Lardizabal.

➡ Cocker hispaniel ingelasa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.

➡ Pastor aleman arrazako txakurkumeak salgai, pedigreearekin. 696057346.

opari

➡ Siames katuak oparitzen dira. 943889010.

Ibilgailuak

saldu

➡ Kroseko motorra salgai: Husqvarna CR 250. 96. urtekoa. 943800487. Ibon.

➡ Kawasaki GPZ 400 motorra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.

➡ Peugeot ST 50 zm³ko motorra salgai. 943887041-943160926.

➡ 'Comanche' kanpin gurdia salgai. Prezio interesgarria. 943885923.

➡ 'Comanche florida' kanpin gurdia salgai. 5 plazakoa eta oso egoera onean. Aukerako prezioa. 943187372

➡ Ford Fiesta autoa, gorria, salgai. 943881938. Karlos. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Extrekin. SS-AD. Asier. 943800384. Gaez deitu.

➡ Cady motorra salgai, 20.000 pezetan. Egoera onean. 943162510.

Bestelakoak

saldu

➡ Kaldera salgai, mixtoa, gasoleoarena. Prezio onean. 943180264.

➡ Pigini akordeoi botoiduna (ia berria) salgai. 943465724.

Denetarik

➡ Gabirian asto-festa herrikoi bat antolatzeke astoak behar dira. Laguntzeko prest daudenek deitu 943887186 telefonora.

➡ Inork 'Mikelen heriotza' pelikularen bideoa badauka, jarri Maiterekin harremanetan. Harremanetarako telefonoak: 943886765 - 943880443.

➡ Eskusoinuak konpon-tzen dira, marka eta modelo guztiak. 943470001. 17:00etatik 19:00etara deitu, ostegunetan izan ezik.

Lana

eskaintza

➡ Kamarera bat behar da. 943162523.

Agurrak

zorionak



➡ Ikusi al duzu nola gelditu zaizun sudurra? Zorionak! Aupa Athletic eta Erreala ere bai.

Antonio Mendizabal

80 urteko zaldibitarra

8 urterekin hasi eta oraindik ere artzain

Antonio Mendizabal 8 urterekin hasi zen artzain. Aita zenarekin joan zen lehengo aldiz, Bizkaira, Gamiza, Mungia ondora. Bertara joaten ziren eguberri ondoren eta apirilaren erditik bukaera bitartean itzultzen ziren Aralarra.

Oinez joaten ziren Bizkairaino. Lau egun pasatzen zituzten joaten eta etortzen, normalean. Azkeneko urtean, kamioiean ekarri zituzten, trafikoa asko handitu baitzen. Inguruko artzainekin bazuen han ere harremana, "Mungia eta Gernikako azokara joaten ginen". Ardientzat ere paraje onak ziren haiek, "Bizkaian jana gozoa zen. Soroa normalean zelaia baino hobe izaten da, jan gozoagoa".

Uda Aralarren, Txutxutan

Aralarren Zaldibiatik hiru bat ordura zegoen txabola, Txutxuta saroiaren. Bertara iristeko Urrustiarre, Arransao, Pikuta, Esnaurreta, Intxintxao, Arrastan, Ouidui, Enerio saroietatik pasa behar izaten zuten. Duela bi urte ere Antonio izan zen Txutxuetako txabolan.

Apirila bukaeratik urriaren amaiera bitartean izaten ziren bertan, elurrik ez bazen behintzat. Ezkonduta ere artzain jarraitu zuen. 4 seme-alabak bertan egoten ziren uda partean. San Martin inguruan jaisten ziren behera.

"Gero herri basotan ibili eta azaro bukaeran, eguberriak pasatu arte, Ataun San Martina eramaten genuen artalde. Handik gero, Bizkaira", dio Antoniok.

Mezetara eta perira

Astean bi aldiz jaisten ziren Aralartik, "asteazkenetan Ordiziako perira eta igandetan, mezatara. Asteazkenetan, arkumeren bat eta gaztak saltzera, mantenua eramatera ere bai. Txerriak eta oiloak izaten genituen eta haiantzako jana eramatera. Norberantzako ere bai. Mandoa, astoak, zaldiak, behorrak... erabiltzen genituen behera jaisteko", gogoratzen du Antoniok.

200 inguruko artaldea edukitzen zuen. Gazta bertan egiten zuten, "saltzeko garraian, garbitu eta keetu egi-

ten genituen. Gaur egun keetu gabekoak nahiago omen dira baina guk keetu egiten genuen". Oraingo gaztaren berdintsu egiten omen zen lehengo. "Orain gehiago ikasita daude, baina orain ere denetatik egiten da. Gusto kontuan ez dago diferentzia handirik". Antoniok oraindik ere egiten ditu gaztak. Mondejuak ere egiten dituzte etxean, dena etxeko produktuekin. "Antigualeko eran".

Giro ona Aralarren

Artzainak elkarrekin oso ondo moldatzen ziren. Gertuneko artzain guztiak zaldibitarrak ziren. Oiduin taberna zegoen eta aizkora jokoan

aritzen ziren. Harri jasotzen ere bai. Egunderrak pasatukoak dira.

44 urterekin ardiak saldu eta Zaldibiako tejerian hasi zen lanean, familia eta morroia mantentzeko adina ez baitzuen ematen artzantzak. Tejeria itxi eta herriko beste enpresa batean, Yannyn, aritu zen lanean, jubilatutako artzain. Artzain izateari ez dio, ordea inoiz utzi, orain ere 15-20 bat ardi dauzka. Artzain bati uzten dizkio ardiak udan Aralarren eta neguan behera jaisten dituenean, etxe inguruan edukitzen ditu. Ardiak noiz jaitsiko irrikitan dago, eguraldi ona dela eta, beranduxeago jaitsiko baitizkiote. Gerritik keitzen bada ere, bixi dago. Ezin ezer egin gabe egon, ordea! Baratzan txirri-txarrika ibiltzen da, eguraldi onarekin. Oiloak, oilaskoak etxean dituzte. Oraindik ere erditzen laguntzen die ardiei, gustora benetan. Ilea ere moztzen die.

Txakurra lagun

Artzain txakurra ere ba du, "ikargarri ona gainera, esandako guztia egiten du. Toni dauka izena eta Toni aipatu orduko ardiak ere adi jartzen dira. Erosi berritan ez zuen lana behar bezala egiten, baina jo gabe, belarrietatik tira eginez, oso txakurra ondo jarrita daukat".



Bizitza asko aldatu da

Zaldibian 44 artzain ezagututa dago Antonio, gehiago ere ba omen ziren garai batean. Gaur egun 7-8 bat dira. Artzainen bizimodua oso gogorra zen, orain bigunxeagoa. "Gaur egun, neguan, ardiak barruan edukitzen dituzte gehienek, prestakuntza handiekin, eta belarra edo pentsua barruan ematen zaie. Lehen Bizkaira, Oiartzun edo Zarautza joaten ziren baina orain ardientzako prestatu daude baserriak. Orain Aralarren txabola asko lujo handiegikoak egin dituzte. Aberatsen etxeen modukoak, ez berriak".

Soldaduskan zazpi urte egon zen. Urtebete gerran egin eta hala ere beste 6 urtean egon ziren. Jaraman egon zen, Madril. "Bizitza asko aldatu da. Lehenagoko bizimodua nahiago dut. Hura lotua zen, baina oraingoa gehiegikoa. Lehen 12ak ezkerreko jendea erretiratu egiten zen, orain 12etan atera egiten da jendea. Lehengo erretiroak eta hobeak ziren. Lehengo garraia nahiago dut, baina diru piska bat gehiagorekin. Hura zen miseria eta gosea!"



Mutiloarrak

Duela 48 bat urte ateratako argazkia da honakoa. Mutiloako emakumeak dira guztiak.

Ezkerretik eskubira, barandaren atzean: M. Pilar Iparragirre, Sabina Oiarbide, Jesusa Telleria, Vitoria Alustiza, Miren Insausti, M. Jesus Alustiza, Rafaelita Insausti, Maria Insausti, Josefa Oiarbide, Ildefonsa Insausti eta Elena Aldasoro.

Barandaren aurrean: Mikaela Alustiza, Enkarna Enatarriaga, Teresita Murgiondo, Felisa Telleria, Kristina Iparragirre, Antonia Murgiondo, Josefa Telleria, Vitoria Telleria, Teresa Mendizabal eta Resu Olaetxea.

Barrenean: Nieves Telleria, M. Jesus Murgiondo, M. Pilar Lekuona, Maritxu Insausti, Pilar Olaetxea, Mari Pili Telleria, Antonia Telleria eta Joakina Alustiza.

lues rothers
BEASAIN

GUREA
JANARIAK

GAZTAK
BABARRUNAK
ARRAUTZAK

☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Añber etxea
MUTILOA

SEGURA IRRATIA

F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZO TRATAMENDUA**
R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINIA, ARTROSIS.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegi
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA

X A · X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN



IRIZAR



MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

GURE ESTRATEGIA:

BEZEROA
ZERBITZATU ETA
BALIOA ERANTSI

GURE GILTZARRIAK:

KALITATEA
ZERBITZUA
KOSTUA
BERRIKUNTZA



FELIPE PRINTZEA
SARIA ENPRESA
BIKAITASUNARI
95 eta 96 urteetan:
- Diseinu industrial
(1995)
- Kalitate industrial
(1996)



URTEKO
AUTOBUSA
94 URTEAN
BRITAINIA
HANDIAN



URTEKO
AUTOBUSA
95 URTEAN
ESPAINIAN




Zorionak Goierritarra
10. urtebetetzean



AMPO S.COOP
IDIAZABAL Gipuzkoa



Zorionak Goierritarra
10. urtebetetzean



AMPO S.COOP
BEASAIN Gipuzkoa



ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritutako aleazioak.

AENOR-ek onarturiko enpresa ISO 9002

☎ 943 18 80 00 - Faxe: 943 18 81 30

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
- Bertan, 2" diametro duten balbuletatik 48" arterainokoak egiten dira.
- Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxeetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
- Honako etxe hauek homologatuta: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENA-GAS, GAS EUSKADI.

☎ 943 88 60 50 - Faxe: 943 88 88 47

ZATOZ



**GUZTIAN IRABAZIKO DUZU,
BAITA**

KALITATEAN

ERE

***Zorionak Goierritarra!
10. urteurrena***

